



Herritarrak etorkizunaren lehen lerroan

GURE ESKU DAGO



FUTBOLA

herria asetzen ez duen elikagaia
Brasilgo Munduko Kopatik joko-eremu lokaletara

ELKARRIZKETAK

Ekain Rojo


Futbola eta nazio eraikuntza Euskal Herrian eta Espainian liburuaren egilea

Andy Robinson

Futbolaren geopolitika (La Vanguardia) erreportaje-sailaren egilea

Raúl Zibechi

Brasil potencia liburuaren egilea



**datorren
astean**



Azaleko argazkia:
ANDONI CANELLADA /
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitaratu ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa:
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara:
Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander
Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner.
Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza
teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite
Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego
Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.
Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa:
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com.
Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com.
Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal
Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182
euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko ekainaren 15a, 2.419. zenbakia

ASTEKO GAIA

GURE ESKU DAGO Hurrengo urratsa: gizarte mugimendu
zabala eratzea XABIER LETONA / 4

PERTSONAIA

EUKEN OSTOLAZA: «Duela hogeita bost urte kontratenorrik
ez zegoen hemen». MIEL A. ELUSTONDO / 12

GAIK

ARRAKALA DOKUMENTALA Zu zergatik zara heterosexuala?
SAIOA ALKAIZA GUALLAR / 17

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Caritasengatik ez balitz,
kalean nengoke. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 20

IRITZIAREN LEIHOA

AHAL IZAN BEHARKO DUGU, NAHI IZANEZ GERO

GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 22

ETXKO LANAK UDARAKO IÑAKI MENDIGUREN / 24

PUTTETIKOAK KOLDO ALDALUR / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Giza katea. AMETS ARZALLUS / 24

BERTSO BERRIAK Gure esku dago.

B. GAZTELUMENDI, M. AROZENA, I. ELORTZA / 25

ZIRTAK Bolonia: erditze gaitz baten gaitzak. JOXERRA GARZIA / 26

ERDIKO KAIERA

GI 631 Urretxu-Zumarragako opera baino gehiago, kultur
ondasuna batu duen ekimena. MYRIAM GARZIA / 27

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 30

MUSIKA LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Zer izan garen eta zer izan nahi dugun, horra
transmisioa. MIKEL ASURMENDI / 33

IHESI HONDARRIBIA (GIPUZKOA) Haitzen giblean, itsaso
gainean. ENERITZ IRAOLA ODRIOZOLA / 34

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ELISENDA CASAÑAS: «Eskozian erreferenduma egitea
posible bada, zergatik ez da Katalunian posible izango?».
JON ALONSO / 40

GIDABAIMENA EUSKARAZ Gero eta naturaltasun handiagoz.
SAIOA LABAKA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Chiapasko indigenek Marcos gabeko aro berriari
ekin diote. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Hurrengo urratsa: gizarte mugimendu zabala eratzea

Gure Esku Dago herri ekimenak 150.000 pertsonekin lotu zituen Durango eta Iruñea joan den ekainaren 8an. Zeru urdinaz gain, ederra zen zerbait berria sumatu zen pertsona katearen gaineko aire horretan. Datozen hilabete eta urteetan ikusiko da zer den.

| XABIER LETONA |

KATEBEGIAK etxeratu eta pausatu ahala hobeto joango da ikusten Gure Esku Dago ekimenak sasoi politiko berri honetara zer ekarriko digun, baina dagoeneko kontsentsuzko ideia batzuk antzematen ari dira. Lehen igandean gertatutakoa, giza katea beraren eraketa fisikoari dagokiona da: Euskal Herrian azken hamarkadetan izan den herritarren mobilizaziorik handi eta bereziaren aurrean gaude; ez da bakarrik helburua, hau da, jendetza biltzea, bidea ere klabea dela alegia. Halako ekimen batek oso maila handiko antolaketa eskatzen du eta bertan parte hartzen duten herritarrek oso ondo ulertzea ideia zer den eta zertarako nahi den.

Bigarrena katearen azpian dagoen oinarritzko ideien bueltan egituratzen ari da: Euskal Herrian oso ohituta gaude autodeterminazioa edo independentziaren aldeko ekimenetara, baina orain erabaki eskubidea atera da kalera, Ibarretxe planaren garaian ez bezala; eta krisi sasoi honetan herritarrak oso ondo ulertzen du erabakitzearena, batez ere, krisia ekarri duten arrazoiak nonbaiten eta ez demokratikoki hartzearen ondorio direlako, eta herritarrak berak erabaki gura duelako.

Hirugarren ideia gizartearen antolaketari dagokio: erabaki eskubidearen ideia nola zabaltu eta egituratu? Herritarren nahia bultzatuko duen gizarte zibil indartsuaren bidez. Bai, hori da Katalunian ANC, eta hemen ere hurrengo urratsetan egituratu nahi dena: erabaki eskubidearen ideia alderdien dinamika eta eraginetik at bultzatuko duen elkarte sendo, dinamiko eta bateratzaila. Ez dira bi elkarte berdin eta hemen ere ez da ANC modukoa izango, baina bai ideia beraren gainean eraikia. Udazken aldera emango dira elkarte egitura-

tzeko lehen urratsak, eta bestela neguan edo datorren urtean, baina hori badator.

Ate berri bat

Ate berri bat ireki da giza katearekin, inork ez daki ongi nora garamatzan, baina bai zerbait berria ekarriko duela. Egia da igandean bildu ziren 150.000 horietatik gehiengo zabal bat seguruenik ikuspegi abertzalekoa dela, baina ez da egia txikiagoa egon ziren asko eta asko ez zirela bertan nazioaren ideiatatik, demokraziaren ideia soilatik baizik. Hau da, ulertzen dutelako inposaketarekin baino demokraziaren ideian sakonduz hobeto bideratu daitekeela identitateen lehia eta herritarren nahiak. Espainiako transizioan autodeterminazioa oso sustraitua zegoen ezkerre-

ko indar guztietan, baita PSOEn ere; gero hamarkadatan alderdi abertzaleek ia bakarrik –Ezker Batua ere hor zen Ibarretxeren Gobernuan– defenditu duten ideia da; eta orain, berriz ere, abertzale ez diren pertsona

Azken finean, gizarte modura garrantzitsuena ez baita independentzia bai ala ez, hori erabaki ahal izatea baizik

ATXONDO
Atxondoko Udala

94 682 1001
www.atxondo.net

AHT gelditu!
EUSKAL PROIEKTA
EUSKAL HERRIA



JON URBE / ARGAZKI PRESS

eta indar politiko askok bat egin du erabaki eskubidearen kontzeptuarekin, EAEko Podemos-Ahal Dugurekin gertatu den bezala (Nafarroako Podemosek joatea libre utzi zuen, baina ez zuen giza katea sostengatu).

Molde zaharrak

Bestelako moldeen gorpuzte eta azaleratzea ikusten ari garen moduan, ez dira falta ikuspegi zaharrak ere. Yolanda Barcinak ekainaren 8an bertan UPNren kongresuan esandakoak dira horren erakusgarri, batetik ekimenari buruzkoak: “Giza katea muntaia propagandistikoa da” edo “nafarroak hautesontzietan erabaki dugu nafar eta espainiar izan nahi dugula”. Galdera eta ñabardura asko egin litezke adierazpenei buruz, baina

Herritarrek ETaren su-etenaren aurreko garaia gainditu nahi dute eta iraganeko lokatza etorkizuna baldintzatzeke erabili nahi duen alderdi politikoak jai izango du, bai EAEn bai Nafarroan.

kasu honetan nabarmentzekoa da molde zaharraren ideari dagokiona, hau da “*que vienen los vascos*” lelo zahar, higitu eta gero eta eragin gutxiagokoa. Datozen hilabeteetan etengabe entzungo duguna da, eta urtebete barruko udal eta foru hauteskundeetan benetan ikusiko da ea Nafarroako eskuin eta ezker espainolistak etekinik ateratzen dioten edo guztiz lurperatua geratuko den.

Zikoitzagoa da, aldiz, eta askoz esanguratsuagoa, etengabe ETari begiratu beharra. “Kateari ekin zioten lehenak Tomás Caballero edo José Javier Mujicaren hilketak justifikatu edo isildu zirenak dira”. Bere botoemai-le trinkoenari begira balioko dio –Kongresuko mezu gisa–, baina aurrera begira ez du ezer adierazten, ez baldin bada ira-



Ezkio-Itsasoko
UDALA

ANDUAGA ETXEA
20709 Ezkio-Itsaso
ezkioitsaso@udal.gipuzkoa.net
www.ezkio-itsaso.net



maizpide
euskaltegia - barnetegia



40 URTEZ
maizpide
bidelagun
udako ikastaroak



Euskarago dago!




bazle eta galtzaileen eskemari lotutakoa. 2011n ETAk armak uztea erabaki zuenetik gero eta argiago dago, herritarrek garai hura gainditu nahi dute, eta iraganeko lokatza etorkizuna baldintzatzeko erabili nahi duenak jai izango du, bai EAEn bai Nafarroan. Giza katearen izpiritua guztiz alderantzizkoa zen, eta hori erabakigarria da gizarte irabazteko: alaitasuna, elkartasuna, energia positiboa eta molde berriak etorkizunari begira. Zume horiekin egin daiteke saski sendorik.

Alderdien eskema soilean geratzea ere molde zaharrekoa da, eta horrek balio du ezker-eskuin, abertzale edo ez. Gure Esku Dagoren mezua argia da alde horretatik, gizarteak eta herritarrek dute protagonismoa eta gero alderdiek eta gizarte eragileek asmatu beharko dute nola. Bistan da instituzioak baka-riek ez direla nahikoa, eta gizartearen indarrak askatzen asmatzea giltzarri dela. Nola uler liteke bestela Eusko Legebiltzarrak ekainaren hasieran hartu berri duen autodeterminazioaren aldeko ebazpenak oihartzun askoz txikia-

Ez daude kontrajariak instituzio eta gizarte bultzada, baina denak adierazten du haien arteko osagarritasunean ere izango dela aldaketarik, eta seguruenik bien mesederako gainera.

goa izatea handik astebetera antolatzen den giza kateak baino? 600.000 boto baino gehiago ordezkatzen zuten EAJ eta EH Bilduren Legebiltzarreko botoek, giza kateko 150.000 pertsona baino gehiago, baina bigarren ekimen honek izan du askoz garrantzi handiagoa. Ez daude kontrajariak instituzio eta gizarte bultzada, baina denak adierazten du haien arteko osagarritasunean ere izango dela aldaketarik, eta seguruenik bien mesederako gainera.

Giza kateak eta datorrenak ez dute aldaturko identitate talde bakoitzak Euskal Herria ikusteko duen modua, baina bai eskaini beharko luke berez gatazkatsua den esparrua aniztasunetik sakontzeko aukera, dagokionean herritarrek erabaki dezaten nola egituratu gura duten euren burua. Epe laburrean behintzat EAEn, Nafarroan eta Iparraldean, azken finean gizarte modura garrantzitsuena ez baita independentzia bai ala ez, hori erabaki ahal izatea baizik. Eta guk ikusten badugu, lehenago edo geroago, munduak ere ikusiko du. ■



BROTXAKETA ETA IJEZKETA TEKNOLOGIA -

Arriagane Industrialdea z/g (Boroa auzoa) - E-48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
94 673 11 12 · Faxe: 94 630 04 51 · ekin@ekin.es · www.ekin.es



Anjel Oiarbide: «Txikira beharrean handira jotzeko garaia da»

[Giza katetik] “GAURKOAK izan behar du gozatzeko egun bat, zentzumen guztiekin jasotzeko hemengo poz eta ilusioa. Indar hau guztia beharko dugu hemendik aurrera pauso sendoagoak emateko. Edozein proiektu, edozein motor martxan jartzeko beharrezkoa den gasolina da ilusioa. Garesti egon da orain arte. Aurtengo urtean ez gara aritu kanpoko iturrietatik ilusioa nondik jasoko, ez, ez, barrura begiratu, eta bakoitzaren iturritik elikatzen hasi gara. Ikasgaia hori izan da, kanpotik zer etorriko zain egon gabe, gure buruari begiratu eta egiteko zer daukagun ikustea.

Bi norabide genituen gaur. Garrantzitsuena barnera begirakoa: euskal herritarrek sentitzea, ikustea, frogatzea euskal herritarren artean gai garela elkarrekin bildu, batu eta oinarri beraren gainean pausoak emateko, elkarrekin gai garela ilusioa sortzeko, elkarrekin gai garela etorkizun bat irudikatzeko... hori zoritxarrez gauza berria izan da. Baina hori jada errealitate bihurtu da. Milaka herritar aktibo, protagonista, kalera irten dira elkarri eskua ematera eta hor dago gizarte bat hemendik aurrerako lana babesten duena eta oinarritzen duena. Zenbat lagundu duen urte osoan egin den konplizitate lan horrek, elkar ezagutzeak, aurreiritzi guztiak gainditzeak eta batez ere elkarlanak. Gure arteko harremanak oxigenatzeko beharrezkoa genuen.

Eta kanpora begira aukera paregabea daukagu. Aurten milioika lagun, milaka kamera eta foko egongo dira Europako bi puntutara begira: Eskozira eta Kataluniara. Euskal herritarrok gai izan behar dugu gu ere hor kokatzeko. Testuinguru politiko horretan gaurko asmoa zen munduari dei egitea ikusi dezaten gu ere hemen gaudela eta gure etorkizuna guk erabaki nahi dugula. Lurralde honetan bizi gara, sentsibiltate politiko desberdinekoak gara, nazio ikuspegi desberdineko jendea gaude, baina elkarrekin gure etorkizuna erabaki nahi dugu. Demokrazia hartuta oinarri, ez dugu zer garen esan nahi, baizik zer izan nahi dugun, zer eraiki nahi dugun. Hemen ez dago inor sobran, hemen denon beharra dago. Hemen bizi garen guztion artean erabaki behar dugu gure etorkizuna. Gaur irudikatzen da, sentitzen da, herritarrok eskubide hori eta jarrera hori barneratzen hasi garela.

Ekainaren 8tik aurrera zer? Hemen oinarri bat besterik ez da jarri. Dena dago egiteko eta hori oso ona da. Orain arte bezala biltzen jarraitu behar dugu, herriz herri, ahalik eta parte hartze zabalena lortzen, erabakitze eskubidea nola landu aztertzen... oraindik ez gara txoko guztietara iritsi eta guztietara iritsi behar dugu. Hemendik aurrera ere denon esku dago dinamika bat hastea. Ikusten dugu dinamika horrek udazkenea begira bere fruituak eman beharko lituzkeela eta gune bat sortu non gai izan beharko genukeen pausoak adosteko eta aurrera begira lan egiteko. Ez dut dudarik aurrera begira honen antzeko ekintzak martxan jarriko ditugula. Honek elikatu egiten gaitu eta. Pentsatu behar genuke herri mugimendu eraginkor batek zer duen eskaintzeko euskal gizarteari. Eta erabakitze eskubidea aldarrikatzetik gauzatzerako pausoak eman behar ditugu serio. Txikira jo beharrean handira jotzeko garaia delako”.

Xabier Euskitze
(Urretxutik Deskargarako bidean, 42. kilometroan):

[Giza katea egin zuten diasporako hiri hauetan: Geneva, New York, San Frantzisko, Boise, Buenos Aires, Mexiko Hiria, Sydney eta Londres]. “Gaur giza-katea osatuko duten diasporako hainbat lekutan dezente ibilia naiz. Oso adierazgarria eta hunkigarria da ikustea hainbeste mila kilometroira dauden euskaldunak gure helburuarekin bat egiten ari direla”.



DANI BLANCO



DANI BLANCO





Elkarlanean bi ikus-entzunezko saio lehen aldiz

Herri ekimeneko hedabideen sektoreak orain arte egin duen elkarlanik zabalaren bidez kontatu zuen eguna. Horren emaitza izan ziren, besteak beste, bi ikus-entzunezko saio: lehenak lau orduz zuzenean kontatu zuen goiza eta bigarrenak egunaren laburpena eskaini zuen gauean.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



ARGAZKI PRESS

Belaunaldien bostekoa

LAGUNEKIN ama daraman autobusaren arduradun alaba doa. Bazen garaia edo erreleboa datorren seinale, zeuk aukeratu. Militante jubilatua bileretan lagunaren semearekin koordinatzen. Gurasoen belaunaldikoekin beti erraza ez dela entzun zaie gazteei, duela 30 urteko faktura bitxiak ateratzen dituzte mahaira. Ekintzaile zaharrak urtetan metatutako azpiegiturak oparitu dizkie hasi berri. Kazetari gazteak estudio zentraletik kronika eskatu dio kalean oinezko erreportari dabilen zuzendari-ohiari. Segaz belarretan Gure Esku Dago zizelkatzen duen aitona-aren irudi helikopterotik bidaliak semearen adinekoak antolatu ditu urrutiko txoko batean, ondoren Interneteratu ditzan biloba izan daitekeenak, ez abisua eman gabe ordenadorea sortzen ikusitako beterano horri sinfalta tuiteatu dezala titulua. Aitatz bizikletan harat-honat peto berdea jantzirik, ama mikroarekin irratiz kontalari, semea bazkarien kantinean eltze artean. Ospitaletik ilunabarri duintasunez aurre egiten dion osaba R.U. patriarkak bidali du mezua: “Gure eskuak ere. +2 Donostiako Ospitaletik“. *Egizute nerek in aberri bidea*, kantatu dugu Iruñetik etxeratuta, adinen arteko katea ere apurtu dugulakoan: *sua bizirik dago, galduak ez gera*.

Pello Zubiria

Kike Amonarritz

(Beasainen, 57. kilometroan):

“Gure inguruan hizkuntza asko entzun ditugu. Euskara, gaztelera, katalana, Afrikako hizkuntzak... Euskal Herriaren etorkizunean hizkuntza desberdinen, jatorri eta pentsakera desberdinen kudeaketa izango da giltzarria. Herri anitza osatzen dugu eta denok argi dugu herri honetan denontzako lekua dagoela eta denon esku dagoela gure etorkizuna erabakitzea”.

Ekintzaile



Nazioarteko oihartzuna

Nazioarteko hedabideetan giza katearen argazki positiboa zabaldu zen: Euronews, *Chicago Tribune*, *New York Times*, *Russia Today*, *The West Australian*... Zerrenda osoa ikusgai Argia.com-en. ARGIAk nazioartean Euskal Herriaren berri emateari ekin zion, besteak beste, Interneten kronika nagusia ingelesez ere eman zuen.



Ekintzaile



Dani Blanco

Ómnium elkarte kulturalak Europako zortzi hiriburutan egin zuten castell bana erabakitzearen alde: Paris, Berlin, Brusela, Geneva, Lisboa, Londres, Bartzelona eta Iruñean.

Jon Alonso (Elorrio):

“Irlanda ez da Euskal Herria, Katalunia ez da Eskozia, Krimea ez da Kosovo... Aspertu arte erabili dute pernandokeria hau ilaje guztietako unionistek. Inon ez dago beste baten berdina den herririk, berdina diren bi pertsona inon ez diren bezala. Dauzkaten edo ez dauzkaten eskubideek berdintzen dituzte. Norberaren estatusa erabakitzearen onarpena, horixe da kokka. Katalunia ez da Eskozia, ez horixe; batez ere Ingalaterra ez delako Espainia, horra”.





Gure herria,
gure esku



Gipuzkoa

BERRIA

«Duela hogeita bost urte kontratenorrik ez zegoen hemen»

Mezzosopranoa, sopranoa eta kontraltoa ditugu emakumezkoen ahotsetan. Gizasemeetan, baritonoa, tenorra eta baxua. Erdian bada eremu bat: kontratenorra, antzinako musika kantatzeko berariazkoa. Horixe landu zuen Euken Ostolazak, gurean horretan inor ari ez zen sasoian. Tenor ari da gaur egun Parisen.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Ez zaude gustura... Donostian, Europako Kultur Hiriburuen inguruan gertatu direnak ez dituzu kontu gozoak. Hala ere, konponbidean da, nonbait.

Konpondu? Bi urte barru egin behar dugu! Hau herri suizidario baten dialektika da, horrelakorik ez da inon gertatzen. Proiektuak eginda egon behar zuen orain dela bost urte, eta orain, lanak bukatzen! Frantziar Marseillan egin zuten bezala. Ez dut esan nahi Marseillan egin zutena egin behar zenik hemen, baina Marseillan egin dute, portura sartzen zarenean, museo bat... zo-ra-ga-rri-a! Hiri guztiak irabazi du kohesioa. Lanpostuak sortu dira, mordoa. Eta turismo mailan piperrik ere balio ez zuena, helburu turistiko da orain. Hor dira Europaren laguntzak, jakina. Hemen ibili dituzten gatazkak, ordea... Konpondu omen dira! Eta zenbat jendek dimititu du? Eta izendatu zuten jendearen artean, zer?... Gurea dialektika suizida hutsa da, zeharo perbertituta gaude. Lasaituko ahal naiz, hala ere! Parisetik etortzen naizenean erresuminduta, tristatuta, nazkatuta egoten naiz; gero, baretu egiten naiz poliki-poliki. Nola daiteke Guggenheim egiteko gai den herri bat, Espainia kontra genuen garaian, Donostiakoa egin ezinik...

Parisen zaudela ere, baduzu hemengo berri.

Ez da garai batean bezala. Etorkina joaten zen, eta ez zuen etxeko berri. Orain, internet bidez beti hemen sartuta nago. Edo Euskal Telebista ikusten dut, edo hemengo egunka-

riak irakurtzen ditut. Eta Parisen banago ere, urtean hamar aldiz Igeldon naiz ni, Euskal Herrian, bultzia hartuta. Bertan pasatzen ditut opor guztiak. Batzuek galdetu ere egin didate: "Hemen bizi al zara? Etorri al zinen?". Ez dut ezer idealizatu nahi, baina atzerrian zaude-nean, egoera erlatibizatzen ikasten duzu.

Zer esan nahi duzu?

Anekdotak bat. Anekdotek balio anekdotikoa besterik ez daukate, baina balio bat. Espainiako telebista piztu eta: "Andaluziarra naiz... Hori baino gehiago: ni, andaluziarra, eta nire familia osoa ere andaluziarra". Hori euskaldun batek esango balu, akabo! Arrazista, xenofobo eta gainerako arrosarioa entzun

NORTASUN AGIRIA

Euken Ostolaza Zamora (Donostia, 1961) Kresala dantza taldean hasi zen txistulari; Donostiako Orfeoien eskolan, musika ikasketak egiten. Lyoneko Goi Kontserbatorioan segitu zuen ikasten bi urtez, eta lau urtez Versaillesen. Ikasketak amaitu eta abeslari karrera hasi zuen. Bi urte egin zituen Estrasburgoko operan, hiru Pariskoan, eta Frantziako Irrati Nazionaleko abesbatzan da orain, Le Chœur de Radio France-n, aldatzeko asmorik gabe. Joxe Mari Usandizaga, Nicanor Zabaleta, euskara, Gernikako arbola, betiereko Nafarroa –betiko euskal estatua–, gure kanta zaharrak... Iritziak ere baditu, eta batere herdoilik ez mihian. Erbestean bizitzeak ematen duen libertate eta freskotasuna ditu lagun.



beharko luke. Euskaldunok geureganatuta daukagu horrelakorik ez esatea. Hezur mami-raino sartuta daukagu kritikatu egingo gaituz-tela. Eta, orduan, aitatu ere ez. Ez naiz harro-keriaz ari, harrotasunaz baizik. Zentsurarik txarrena autozentsura da, zentsurarik borti-tzena, perbertsoena, pentsamendu kritikoa ere galarazten diguna. Euskal Herria maite dudala ere ezin esan!

Ez zaitugu enbaxadore makala.

Asko ibili naiz batean eta bestean. Jakinaren gainean ari naiz: Europako txokorik onenetakoa iruditzen zait Euskal Herria. Ez da “iruditzen zait”, “da” baizik. Frantziarrari esan euskalduna zarela eta, automatikoki: “Zein eder! Zoragarria da!”. Frantziarrari zoragarri zaio hau. Eta badakizu zergatik?

Zein da, bada, arrazoia?

Halaxe delako: zo-ra-ga-rr-i-a! Hemengo mikroklima, hemengo Pirinioak, itsasoa, bi kultura aldamenean –Frantziakoa, batean; Espainiakoa, bestean–... Mikroklima batean bizi gara, bizitzeko gozotasuna daukagu hemen. Udan, gure itsasoko urak ere lau gradu gehiago ditu Asturiasen edo Landetan baino. Klima gozoa da gurea. Euria daukagu, eta eguzkia. Europa osoan euria daukate, eguzkirik ez. Guk, berriz, bietatik daukagu. Aldiz, hemengo eguraldia txarra dela sartu digute buruan, eta ezin atera. Zoaz Almeriara, ikusiko duzu astebetara nola itzultzen zaren. Mila gauza... Gure hizkuntzarekiko errespetu falta izugarria, adibidez. Gure musikarekikoa.

Atera da zure lanbidea, tenorra baitzara. Irakasle ikasketak egiten ari zinela ezagutu zintugun. Baina ez zenuen bide hartan aurrera egin. Jendea hitz egiten hasi zen, beti bezala: “Gure promozioan irakasle asko izango da [1980], lanik ez da izango, haur gutxiago dator...”. Eta, horretan, deialdi bat egin zuen Gipuzkoako Diputazioak, lehiaketa, eta sartu nintzen. Azterketa egin eta aho batez onartu ninduten. Foruak, karlismoa eta gainerakoak ikasi nituen... Marxek karlismoa defendatu zuen, Karl Marxek, ez nik. Baina PSOEko irakasle progreak hor ziren beti, karlismo guztiak bat eginda: Iparragirreraren, Sabino Aranaren, Santa Kruzen karlismoak ez du ikustekorik Francoren garaiko karlistekin. Bi mundu kontrajarriak dira zeharo: hizkuntza gal, arima gal... Oso onak gara amalgamak egiten.

Tenor bitarteko bidea kontatzen hasi behar duzu.

Goizez besterik ez genuen lan egiten diputazioan eta, abantaila, arratsaldean Donostiako Orfeoien entsegu guztietara joaten nintzen.

Igeldo

“Igeldon jaioa naiz, Leku Eder etxean bertan, eta Antiguan hazia. Txikitan, Igeldoko herrira joaten ginen. Igeldo eta Donostia, gatazka politikoa da, besterik ez. Hemen beti batzuk besteek kontra. 53 urte ditut, eta jada ez didazu Donostia kenduko. Kresalan dantzari, Donostiako Orfeoian abesten, Diputazioan lanean... Zeinek esan behar dit ni baino donostiarragoa dela?”.

Errespetua

“Euskal Telebista piztu. Nola hitz egiten du jendeak euskaraz? Frantzian berriz, ipurdia galdu beharrean, frantsesez ondo hitz egiteko. Italian berdin. Eta Espainian, ipurdia galdu beharrean, ahoskera ederrena erabiltzeko, inflexio egokienak baliatzeko, seduzigarri izateko... Gurean, jendeak nola hitz egiten du euskaraz? 250 hitz baino ez ditugu erabiltzen. Horrela ezin duzu sentimendurik azaldu ez ezer. Heriotzara goaz!”.

Hango eskolan hasi nintzen ikasten, berandu, 27 urte nituela, diputazioan eszedentzia eskatuta. Oraindik ez naiz itzuli. Handik, Frantziara. Orain Frantziako Irrati Nazionaleko abesbatzan ari naiz, baina txistuari esker nago han.

Txistuari esker?

Bai, han sartzeko proba baztertzaila, solfeo moderno izan zen, ondo jakin behar duzu solfeoa, tonaltate ezberdinak. Irrati Nazionaleko abesbatzan errepertorioa asko aldatzen da, eta ezin ditugu kanta guztiak buruz ikasi. Aste batetik bestera, partiturak ekartzen dizkigute, eta ondo irakurri behar duzu. Eta nik txistuari zor diot hori. Gero ondu egin dut, jakina, baina txistuari zor diot. 15-16 urte izango nituen Jose Inazio Ansorenarekin hasi nintzenean. Hari zor diot. Antzerkia, euskara, gaztelania... Oso maisu ona zen. Larramendi ikastetxean eta kontserbatorioan, bietan izan nuen. Meritu handiko pertsona. Langile porrokatua. Eta euskaldun berria bera, baina nola ikasi zuen euskaraz!

Nola sartu zinen Orfeoian?

Audizioa eginda. Legendako zuzendaria izan nuen audizioan, Antxon Aiestaran. Musika irakurtzen nuen, bai, baina ahotsa, berriz, halakoxea neukan. Antxonek, hala ere, aukera eman zidan. Gero hobetu nuen ahotsa, abestuz eta abestuz, eta errepertorio ezberdinak eginez. Horrela egin nuen bidea, Frantziara joan nintzen arte. Arriskuak gustatzen zaizkit, eta, bestalde, batere materialista ez naiz. Etxean asko kostatu zitzaizen ulertzea, administrazio karrera utzi eta kantatzen hasi behar nuela. “Diputazioko postua galduko duzu”, baina nik abestu egin nahi nuen. Zazpi urte eta erdi egin nituen diputazioan, ordenantza, eta oso zoriontsu ere! Jendearekin harremanetan beti. Hura utzi eta kantatzen hasteko erabakia hartzeko, berriz, erorka izan behar da, edo zeure buruari “behin bakarrik bizi gara” esan behar diozu. Bestela ez dago...

Donostiako Orfeoian sartu zinen...

Ahots berezia neukala esaten zidaten, ahots polita, eta kontratenor hasi nintzen, antzina-ko musika kantatzen. Jakina, esaten zidaten nik entzun nahi nuena, kar, kar. Horrela etorri zen. Musikari eta artista guztiei gertatzen zaiena gertatu zait niri ere, aurrena espero nuena ez dudala egin. Nik, izan ere, nazioarte mailako bakarlari karrera egin nahi nuen. Parisen, nire lana abesbatza profesionalean lan egitea da, baina, horretaz aparte, solista karrera txiki bat egiten ari naiz. Lehengo batean, artean maiatzean, Britainiako Quimper-en abestu nuen, bakarlari. Bernard Cavannaren *A l'agité du bocal* (Buruz nahastu-

takoari), Celineeren testu baten gainean egingako opera. Zuzendariak nahi zuen hiru tenorretako bat neu izatea. Horixe ohorea! Musika modernoa abestu nuen, eta abenduan Parisen egingo dugu. Lehenago, Parisko operan nengoenean, hainbat paper jokatzeko nituen, baina txikiak. Hiru urtean, hiru paper txiki. Eta Parisko operatik aparte zerbait egin nahi nuenean, baimena eskatu eta erantzuna beti zen “ez”, sistematikoki. Eta horrela ezin da. Irratian, berriz, hamalau urte daramatzat, eta askotan egiten dut handik aparteko lanik. Hainbatetan baimena eskatuta ere, behin bakarrik esan didate ezetz.

Hortaz, Frantziako Irrati Nazionaleko abesbatzan ez ezik kantari zabilta.

Proposatzen dizkidaten operak, kontzertuak eta gainerakoak egiten ditut. Baietz esaten diet horrelako proposamenei, beti. Aberasgarria zait, oso, baita intelektualki ere. Nire lana da irratiko abesbatzan lan egitea, oso ondo, baina horretaz aparte, bakarlarari jardutea gustatzen zait, oraindik orain Britainiako opera berri horretan egin dudana bezala.

Intelektualki aberasgarria...

Errepertorioa asko aldatzen baita. Askoz ere musika gehiago ezagutzen duzu. Horregatik eskatzen dute oso ondo irakurtzen dakien jendea, hizkuntzetan trebea dena, eta tonalitate eta erritmo zailetan ere ondo moldatzen dena.

Kontratenor hasi zinen, baina tenor ari zara orain.

Kontratenorrek faltsete ahots naturala du, eta horri edertasuna ematen saiatzen da. Gizaseme oro kontratenor gara, baina ni hasi nintzen garaian inork ez zuen hori lantzen. Duela hogeita bost urte Donostian zegoen gustu musikarekin konparatuz gero, ni oso aurrerakoia nintzen. Garai hartan, jendea kontratenor ahotsa lantzeak lotsa emango zion. Niri, berriz, inolako lotsarik ez zidan ematen. Niri beti gustatu izan zait antzinako



musika, Erdi Arokoa, barrokoa eta hori dena. Orain normalagoa da, baina duela hogeita bost urte kontratenorrik ez zegoen hemen, jendeak ez zuen ezagutzen ahots tipo hori, ez zen ausartzen. Diputazioan ari nintzela beka bat lortu nuen, eta hasi nintzen.

Eta gaur egun, tenor ari zara.

Bai, bestelako erregistroa hartu dut. Kontratenor ari nintzen, baina errepertorio handiagoa du tenorrek, dela opera kantatzeko, dela beste edozertarako. “Bai, bai, tenor ahots interesgarria daukazu”, esaten zidaten nire maisuek. Sei bat hilabetea, biak egiten ibili nintzen, kontratenor eta tenor. Behin, kontratenor ari nintzen azken sasoiari, kontzertu bat egin nuen, baina txarra. Hartu eta itzuli egin nuen txeke! Tira, ez nituen nota asko utzi egin gabe, bizpahiru, baina neure ahotsak esan zidan: “Zeuk aukeratu: edo kontratenor izaten jarraitzen



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

GALDE SHORTA

Bada hamahiru

Igeldo. Nire herria.

Leku Eder. Urterik politenak, unerik saminenak. Gure familia.

Donostiako Orfeoia. Ahots ikasketak Isabel Alvarezekin. Bizikizunak, eta bi lagun, betiko. Bidaia ahantzezinak. Eta Antxon Aiestarani esker ona, betiko.

Txistua. Zer errepertorio, zer aberastasun!

Gipuzkoako Diputazioa. Aldundia. Nik ezagutu nuena, sendi bat zen. Santa Rita zaindariaren eguneko bazkaria. Lana, umorez.

Donostia. Zenbat eta espainolago, orduan eta probintzialago. *"¡Qué pena!", en español.*

Frantzia. Dena eman dit. Haien kultura, tradizioa, aberastasuna. Gure mentalitate espainolarentzat Frantzia ez da existitzen. Guretzat okerrago!

Espainia. *Mejor no hablar* (hobe ez aitatu).

Euskal Herria. Independentzia oraintxe, hemendik ordu laurdenera. Eta bizi, eta munduari gure aberastasuna eskaini. Donostiako martxak dioena: Bagera! *Ba al gea?* Bai, bagara!

Musika. Zenbat emozio!

Euskara. Nire hizkuntza. Badakizu Bibliak zer dioten: hasieran bazen hitza. Nirea, euskaraz.



dugu, edo tenor". Handik atzera tenor hasi nintzen; tenor, bakarrik. Serio abestekotan, edo kontratenorra zara, edo tenorra, edo baritonoa. Zeure ahotsari dagokion tesitura landu behar duzu, ez besterik. Eta tenorra naiz. Kontratenorra izan nahi izan banu ere, behin ere ez nintzen Parisko operan izango. Kontratenor ahotsa antzinako musika edota barrokoa egiteko erabiltzen da, ez besterik. Egitura profesionaletan ahots estandarrak besterik ez dituzte onartzen.

Zer eman dizu Parisek, zer Frantziak?

Asko. Ikasketak hemen hasi nituen, baina han bukatu. Dena eman dit: musika, bizia, maitasuna... Oso esker onekoa naiz. Hemen baino desumanizatuago dago Frantzia, hemen baino materialistago da jendea. Horixe du Frantziak, Jainkoa hil zuten, eta Jainkoarekin batera, humanismoaren balio asko ere bai. Eta oso gaizki dabilta horrela. Konfliktu izugarria dute erlijioarekin. Eta hizkuntzarekin. Garai batean pentsatzen zuten hizkuntza *patois*-ak frantsesaren arerioak zirela. Orain konturatu dira ezetz, frantsesaren arerio bakarra ingelesa dela.

Arerio?

Espainian gertatzen den bezala. Ematen du katalana eta euskara, espainolaren arerio direla, baina espainolak ez du areriorik behar. Espainolaren problema da bigarren mailako

hizkuntza bihurtu dela. Inportantea da, baina mamboa dantatzeko besterik ez du balio. Horrelaxe! Bi edo hiru belaunaldi barru, espainola ama-hizkuntza izatea mundura irtekeko zailtasuna izango da. Guk euskara eta ingelesa beharko genuke, eta kito. Bai, espainola hizkuntza handia da, baina bigarren mailakoa, eta gero eta bigarren mailakoagoa izango da. Espainola, zailtasun erantsia da.

Ez alferrik, idatzita dago *Euskaldunak eta espainolak*, Joxe Azurmendirena. Zein musikagile interpretatu nahi izaten dituzu?

Gero eta gehiago gustatzen zait Verdi, eta Puccini ere bai. Errepertorio alemana ere asko estimatzen dut; Richard Strauss, adibidez, XX. mendekoa... Baina musika ez da musika bakarrik, musika hizkuntzak ere bada, literatura, mitologia, folklorea, tradizioa.... Horregatik, musika klasikoa interesatzen zaion pertsona askoz irekiagoa da, interesatzen ez zaiona baino. Hasteko, hiru hizkuntza dituzu musika klasikoan: italiera, alemana eta frantsesa. Errepertorio ikaragarria dago hiru hizkuntza horietan. Errepertorio germanikoa bera zoragarria da. Wagner, esaterako. "Zein abestu nahiko zenuke?" galdetuko bazenit, Wagner esango nuke, baina Wagner ez da ahotsa, turbo motorra baizik. Munduan oso gutxi dira Wagner abestu dezaketen ahotsak. Horretarako ahotsa, turboa behar duzu! ■



‘ARRAKALA’ DOKUMENTALA

Zu zergatik zara heterosexuala?

Heteroarauaren inguruko *Arrakala* dokumentala argitara eman berri dute. Desirak, identitateak, familia ereduak, sexu-genero inposaketa... Horiek dira aletzen dituen gaietako batzuk. Norma heterozentrista zutabe duen sistema patriarkala ezbaian jarri, eta bestelako harreman ereduak eraikitzeko aukera dagoela ikusarazten du bideoak.

| SAIOA ALKAIZA GUALLAR |

LARRUA ZEINEKIN JOTZEN DUGUN politikoa da. Baita larrua jotzea zeri deritzogun ere. Identitateak ere politikoak dira, edota sexualitatearen dimentsioa non kokatzen dugun. Heteroarauak, bizitza publiko eta pribatuaren arautzaile bezala, pertsonak eta praktikak mugatzen ditu; ona eta txarra zer den zehazten du. Sexualitatea ere gatazka politikoa da, beraz. Horregatik, Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Topatu Gazte Proiektu Komunikatiboak *Arrakala*, *zirrikitu bat haitzean* dokumentala sortu dute elkarlanean. Hamabost elkarrizketen bitartez, bestelako aukera identitarioak, bizipenekoak eta sexualak hautatu dituzten pertsonen testigantzak jaso dituzte. Haitz zurrin batekin konparatzen dute egileek heteroaraua, horren karietara arrakalaren kontzeptua. Zirrikitu bat ireki nahi dutelako “haitzean”.

Ekainaren 13an estreinatuko dute dokumentala, Donostiako Doka Kafe antzokian, 19:30ean.

Dokumentaleko bi solaskide elkarrizketatu ditugu ondoren:

Ainhoa Etxaide

LAB SINDIKATUKO idazkari nagusia da Ainhoa Etxaide (Hondarribia, 1972), pertsona aski ezaguna Euskal Herrian. *Arrakala* dokumentalean, baina, orain arte plazaratu gabeko hausnarketak eskaini ditu. Hiru gai nagusiren bueltan harilkatu ditu gogoetak: lesbianismoa, amatasuna eta sindikalgintza.

Zu ama izan zara, baina zure bikotekidea erditu zen umeaz. Uste duzu sozialki berdin baloratua izaten dela jaioberria mundura ekartzen duen ama eta beste ama?

KARLOS CORBELLA



«Bestelako Euskal Herria eraikiko badugu, heteroarauaz ere hitz egin behar da»

Ez, oraindik bada amatasun bat eta bakarra: erditzen den emakumea, haurdunaldi zoriontsua duena... Erabateko emakume egiten duen amatasuna. Gero, ematen du badaudela bigarren mailako amatasunak. Badago konstrukzio hori; nik bizi izan dut. Batetik, jendeak ez ulertzea uko egiten niola haurdunaldiari. “Nik ez dut eduki nahi”, esan eta bazirudien gaixo nengoela. Bestetik, bigarren ama izatea. Bigarren amaren rola diogunean, “bigarren” hori ez da ondoan dagoena, baizik eta azpitik dagoena. Indarrean amatasun eredu nagusi hori dago.

ARRAKALA DOKUMENTALA

Nola hartu zuten sindikatuan ama izan behar zenuela?

Gizartearen argazkia da sindikatua: Sindikatuen barruan askatasunez bizitzeko eredu baten aldeko borroka egon badago; baina, egia da, gizartean nagusi diren ikuspuntuak daudela. Esan nuenean, niri ez zitzaidanez tripa hazten, bazirudien ez zela heltzen haurdunaldiaren momentua. “Oraindik ez dator”, pentsatuko balute bezala. Eta nik ez nuen umerik barruan! Horrelako egoerek sortzen dituzten kontraesanek erakusten dute oraindik zenbat bide dugun egiteko.

Bideoan esaten duzu “erraza” izan dela lesbiana izatea eta sindikalgintzan aritzea, azken batean idazkari nagusia zarelako, baina zailagoa dela postu apalagoetan daudenentzat.

Nire esperientzia hor dago eta errealtate bat islatzen du, baina ez nintzateke ausartuko esatera hori denik errealtate bakarra sindikatuan. Nik arazorik izan ez dudalako ez dago jarrera homofoborik LAB sindikatuan? Ez dut sinesten. Horrek eramaten nau beste gogoeta batera: seguru errazagoa dela gauzak askatasunez bizitzea boterea duzunean, aukerak dituzunean, eta tresnak dituzunean, beste eremu batzuetan baino. Orokorrean bizitzan, baita sindikatuan ere. Idazkari nagusi ikusten naute, eta gero, lesbiana izatea ezaugarri bat da.

Adibidez, ziur nago emakume bat joaten denean lantoki batera gizonen artera eztabaidatzera, askotan ikusi dutela soilik emakume bat eta ez arduradun sindikal bat. Era berean, ziur lesbiana batek lantokian bere egoera ikusarazterakoan, topatuko dituela nik topatu ez ditudan zailtasunak.

Euskal Herriko herri mugimendua eta militantzia esparruak uste bezain aurrerakoiak dira?

Onartu behar dugu askatasunaren aldeko borroka bereziki gure herriarekin lotu izan dela, langileriarekin, klase borrokarekin... eta horiei gehitu zaizkie bizimodu askeen aldeko borrokak. Baina gehitu egin zaizkie. Oraindik asko daukagu egiteko. Nik ez dut uste Euskal Herrian besteak baino progreagoak garenik, ezta atzerakoiagoak ere. Hemen arazo hori badago –heteroarauarena–, auzi politikoa da, eta bestelako Euskal Herria eraikiko badugu, horretaz ere hitz egin eta erabakiak hartu behar dira.

Ohituta gaude homosexualitatearen inguruko diskurtso fatalistekin. Zuk, ordea, dokumentalean askatasunarekin eta gozamenarekin lotzen duzu lesbianismoa.

Bai, disidentziak, desobedientziak, egoerari buelta emateak... aske egiten zaitu. Disidentziak sortzen du ilusioa, ikuspegi positiboa, txisteak egin daitezke... Beste kontu bat da disidentziak batzuetan, askotan, gehienetan, zigorrak dakartzala, edo diskrimatu egiten zaituztela, edo alboratu eta eraso egiten dizute. Zigorrean ezer ona ateratzerik ez dago; zigorraren kontra borrokatu egin behar da. Dena den, berez, ezberdintasuna, ezarri nahi dizkiguten mugak gainditzea... positibizatu behar dugu. Askoz sufrimendu handiagoa eta tristeagoa da burumakur eta esaten dizuten bezala bizitzea. Disidentzia gozagarria da, eta ikustea nola apurtzen dizkiozun eskemak jendeari. Sistemak ezberdina den guztia zigortzen du, baina ezberdina izatea da onena.



ZURIÑE M. BAZTAN EK UTZIA

«Errealitatea binarioa ez balitz, ez nintzateke sailkatuko ez gizon ezta emakume gisa ere»

Zuriñe M. Baztan

JAIOZTERAKOAN medikuek erabaki zuten Zuriñe M. Baztan (Iruñea, 1964) mutila zela; txikitik, gizon bezala sozializatu zuten. Berak, ordea, emakumetzat izan du betidanik bere burua. Emakumetzat, baina gizartea binarioa delako eta bi aukera baino ez dituelako ulertzen. Izan ere, zirkuluaren koadratura egin nahi izatea da bi sexu-generoen bitartez mundua azal daitekeela pentsatzea.

Gizon bezala sozializatu zintuzten, baina zu emakume sentitzen zinen.

9 urterekin, banekien zerbait ezberdina nuela gainontzeko haurrekin konparatuz. Nik momentu horretan nire burua arrebarekin identifikatzen nuen. Zoritzarrez, urte horietan ez nekien horri transexualitatea deitzen zitzaiunik.

Nola erabaki zenuen zure burua emakume bezala identifikatzen hastea?

Hasiera batean, munduarentzat gizona nintzen, eta nik ez nuen nire gizon gorputza erakusteko beldurrik; nolanahi ere, ez zitzaidan deus arraroa nabaritzen! Nahiz eta emakume sentitu, kanpotik ez zen ikusten. Gainera, gizontasunean ezkutatu egin nintzen: futboleko aritzen, zakarra izanda, zarpaila... Baina aita hil eta gero, eta kartzelan egon ostean intsumisoa nintzelako, erabaki nuen niri zegokidan bizitza bizi behar nuela, ez jendarteak bilatu didana. Hala, emakumea izateko tratamendua hasi nuen. Ostean, ebakuntzak egin nituen.

Gizon izatetik emakume izatera pasa zinen. Aitzitik, sexu eta generoen binarismoa kritikatzeko duzu.

Jendarte hau binarioa da: emakumeak eta gizonak daude. Soilik bi aukera baldin badaude, nire burua gizon gorputzean ikusi eta nire burua identifikatzen ez dudanez, ni emakumea naiz. Gainera, hautu politiko bezala ere hartu dut emakume identitatea. Emakumeen eskubideak eta aldarrikapenak



“XY zara, beraz, zakildun gorputza duzu; beraz, gizona zara; eta gizona zarenez, maskulinitatean hezi beharrekoa... Hori ez da horrela”

Zuriñe M. Baztan

defendatzeko balio duen heinean, politikoki oso interesgarria da. Errealitatea binarioa ez balitz, ni beste toki batean al nengoke? Ziur asko bai, ez nintzateke sailkatuko ez gizon ezta emakume gisa ere.

Finean, anitzak direlako identitateak.

Irudika dezagun horrela: soka baten mutur batean gizonak daude, eta bestean emakumeak. Ulertuko bagenu continuum bat dagoela, eta ez dugula zertan bazter bat edo bestea izan, izango bagina gai konplexuagoa dela ikusteko.... Ez da “XY zara”, beraz, zakildun gorputza; beraz, gizona; eta gizona zarenez, maskulinitatean hezi beharrekoa... Hori ez da horrela. Ukitzen ez diren bi linea paralelo bezala ulertzen dugu gizon edota emakumea izatea. Ba, ez, inondik inora. Batzuk erdian egongo

ginateke, edo bazterrean, edo inguruan... eta sigi-saga ere egin dezakegu, gainera!

Horren harira, nik garai batean ebakuntza egin nuen. Baina oraingo ikuspegitik ez nago ziur egingo ote nukeen. Hau da, fikzio politikoa da orain galdeztzea garai hartan ebakuntza egingo nukeen ala ez, baldin eta gaur egun dauden teoria politikoak orduan ezagutu izan banitu.

Garai hartan interbentzio kirurgikoa nahi izan nuen, eta kito. Presio sozialak zenbateraino baldintzatu zuen ebakuntza egiteko nire eraba-

kia, eta zein puntutaraino ahalko nuke bizi, naizen emakumea izanda orduko gorputzarekin? Auskalo, oso zaila da esaten. ■



Inguru ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidalak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635.748.948 - 635.748.947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

Caritasengatik ez balitz, kalean nengoke

Olatz Mujika Zubizarreta naiz eta 46 urte ditut. Bi seme-alaba nerabe dauzkat, eta egoera ekonomiko larria jasaten ari gara. Caritasera joan behar izan dut laguntza eske.



HILABETEAN lan txiki batzuk egiten ditut han eta hemen, baina ezer gutxi, eta bikotekide ohiak seme-alaben elikadurarako ematen dizkigun 447 euro ditugu hilabetearen bukaerara iristeko. Caritasi esker egiten dugu aurrera, etxearen hipoteka baitaukat ordaintzeko, eta elkarteak laguntzen baitit gastu horri aurre egiten. Horrez gain, astean behin etxe inguruko parrokiatik elikagai batzuk jasotzen ditut. Orain urte batzuk, nork esango zidan niri eskean aritu beharko nuenik...

Komertzial lanetan aritu naiz hogeitaz urtez. Orduko bikotekidearen enpresan aritzen nintzen beharrean, eta zenbait inbertsio ere egin genituen elkarrekin, nabe industrial bat erostea, esaterako. Gure harremanak okerrera egin zuen, baina, eta orain hiru urte bereizita, gaur egun urruntze agindua dauka nire bikotekide izan zenak. Ez zen, imajinatuko duzuen bezala, separazio normala izan, eta ordutik aurrera hasi zitzaizkidan kontu ekonomikoak okertzen. Hogeitaz urtetan egindako lanaren arrastorik ez dago paperetan, ez bainuen langile bezala jarduten, emazte bezala baizik, eta gaur mila bat egun-edo edukiko ditut kotizatuta Gizarte Segurantzaz.

Hogeitaz urtez egin nuen lan gizonaren itzalpean, eta hasteko, ez daukat egindakoagatik tokatzen zaidan langabezia kopurua kobratzerik; eta bigarrenik, beste lanen baterako eskatzen den esperientzia ezin dezaket justifikatu, eta gainera jakina da 40 urtetik gorakoei gaur egun ez daukagula lanpostu bat lortzeko aukera handiegirik. Horrez gain, seme-alaben zaintzaren ardura daukadanez, etxean geratzeko aukera izan dut, baina oraindik hipoteka ordaintzeko dagoenez, hori ere izugarritzko karga da hileroko.

Laguntza sozialetara jotzeko beharrean ikusi dut neure burua, baina horretan ere zailtasunak ditut, senarraren eta bion izenean dagoen nabe industrial hura baitaukat ondare. Ez dut zentimo bakar bat ere jasotzen eraikin horretatik, ordea, noizbait eduki genuen negozio hark porrot egin baitzuen. Baina oraindik bion izenean mantentzen denez, arazoak jartzen dizkirate laguntzak jasotzerako garaian.

Beraz, goiz batez erabaki nuen, guztiz konbentzita ez bazen ere, Caritas bezalako elkarte batera gerturatzea laguntza eske. Bada urte eta erdi lehen aldiz joan nintzela, eta benetan eskertuta nago ematen ari zaizkidan guztiagatik. Haiengatik izan ez balitz, kalean nengoke dagoeneko, hileroko hipoteka ordaindu ahal izaten baitut eurei esker.

Eta zailena, askotan, laguntzaren beharraz jabetzea izaten da: “Nola joango naiz ba ni Caritasera?”. Baina egun txarrak bizitzea egokitu zaizula eta laguntza behar duzula onartzen duzunean ematen da pausorik handiena. Hortik aurrera borrokan jarraitu beharra dago, zuloatik ateratzen ahalegindu beharra. ■





...eta zure laguntza saritu nahi dugu.

Parte hartu zozketan

Sariak:



100€

50 txartel



Parte hartzeko, bidali:

- **Zozketa + izen-abizenak**

Telegram, Whatsapp edo SMS bidez

(0034) 687-48 97 84

- Eman izena webgunean: **www.berria.info/zozketa**

Babesleak



AZAK

berria
mundua·euskarari·emana

Statu Personāls Biežestības Akta izstrādāšanai (No 25.09.99) pēc Organizācija bērni, jaunieši nāvi dzimu zure dudu personāls BGRJA



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Ahal izan beharko dugu, nahi izanez gero

ASKOTAN, gutxien espero denean, gauzak ezustean aldatzen dira. Europako hauteskondeei esker –batzuek ez diete ezer eskertuko, noski–, panorama politikoa eraldatzen hasi da. Irakurketa asko dira posible, aldagai askoren arabera: lurraldeak, alderdiak, ideologiak... Nik nirea egin dut, ilusioaren eta etorkizunaren arabera –hau ere zilegia da eta–.

EAEn emaitzek panorama irekia utzi dute: EAJk irabazi du, EH Bildu gertu duelarik. PSOEek eta PPk sekulako jipoia jaso dute eta Ezker Anitzak eta Podemos-ek lortutako bozen kopuruak bermatzen die toki interesgarria etorkizunean.

Nafarroan egoera desberdina da, baina joera antzekoa: PPk irabazi du, baina EH Bildu atzetik gertu doakio. PSOEek –PSNk– kolpe latza hartu du, EAJk emaitza kaxkarrak lortu ditu, Izquierda Ezkerra eta Podemosen oso atzetik.

PP saiatu da bere porrota ezkutatzan, irabazi duela gogoratuz, baina kolpea galanta izan da. PSOEek, aldiz, aukera hori ez du izan: bere porrota nabarmena izan da, aurrerapauso handia emateko aukera zuela adierazi eta gero. Orain jabetzen ari da, derrigorrez, norabide garbirik ez duela

Katalunian oraindik dena erabakitzeko dago: ERC, CIUren aurretik jarri da, bien artean %55 gaintitzen dute eta Espainiako alderdi nagusiek behera egin dute nabarmen.

Espainian, zaila da emaitzak argiagok izatea: PPk gehi PSOEek 5.000.000 bozka galdu dute eta bien artean ez dira %50era iristen –%26 eta %23–, Izquierda Pluralek %10 lortu du, Podemosek %8, UPyDk %6,5, Primavera Europeak %2, eta abar.

Europar, nabarmenena, gehien azpimarratu dena, alderdi ultraeskuin eta xenofoboaren igoera izan da. Benetan sinestezina da Frantzian, Ingalaterran, Danimarkan edo Austrian alderdi horiek botoen %10etik %29ra lortu izana.

Oso zaila da ondorio orokorrak ateratzea, baina argi dago herriak aldaketaren alde egin duela apustua: Europar eskuinera jo dute, EAEn eta Nafarroan, Espainian bezala, ezker aldera egin da bira. Bi era desberdinak herritarren haserre bideratzeko eta oso ondorio desberdinak ekar ditzaketanak, noski.

Honaino emaitzak. Baina emaitza hauen ondorioak dira orain eztabaidagai, batez ere Espainian: gehiengo absolutuaz Gobernuan dagoen PPk botoen %26 besterik ez du lortu eta orain gutxira arte gobernatu duen PSOEek %23 bakarrik.

PP saiatu da bere porrota ezkutatzan, irabazi duela gogoratuz, baina kolpea galanta izan da. PSOEek, aldiz, aukera hori ez du izan: bere porrota nabarmena izan da, aurrerapauso handia emateko aukera zuela adierazi eta gero. Orain jabetzen ari da, derrigorrez, norabide garbirik ez duela, proiekturik gabe dagoela eta aspaldian uko egin diola politika ezkertiarri. Hauteskunde hauetan herriak bizkarra eman die, bai bere politikari, baita bere liderrei ere. Lan latza du hemendik aurrera –liderra hautatzea gutxienezko izango delarik–. PSOEek –PSE eta PSN barne, noski– erabaki sakonak hartu behar ditu, birfundatu behar du, bere rola aukeratu eta bere esparrua deliberatu, hau da, herritarren eskubideen alde ala botere ekonomikoen eta Espainiako batasun eztaba daezinaren alde aukeratu behar du.

Gure lurraldean panorama desberdina da, jakina. Ezkerra indartsu atera da hauteskunde hauetatik –EH Bildu buruan, baina baita Ezker Anitza eta Podemos ere– eta aliantza berriak espero daitezke etorkizunean. Bestalde, EAJ eta EH Bilduren arteko lehia ikusgarria izaten ari da, batez ere Gipuzkoan, eta urtebete besterik ez dago datozen udal eta foru hauteskundeetarako.

Halere, hauteskunde hauen ondorio-rik deigarriena hauexa izan da: espazio berriak zabaltzen ari direla, orain arte aldaezina eta iraunkorra zirudien egoera mugitzen hasi dela eta gure etorkizun beltza aldatzeko gai garela, horrela nahi izanez gero. ■





Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Etxeko lanak udarako

HEMEZORTZI URTE eman ditut aldizkari honetan tarte zertxobait idazten. Honezkero batzuk ohartuko zineten irakurtzea dudala obsesioetako bat, sarri gomendatu izan baitut libururen bat artikulu hauetan. Izan ere, jakintzak, kulturak egiten gaitu gizaki, eta egin beharko gintuzke pertsona hobeak. Badakit jakintza ez dela liburuetara mugatzen, baina gaur egun eta hemen libururik gabe ez dago kulturarik, eta duela gutxi Atxagak gogorarazi zuen bezala, gure gizartean irakurketarik gabe ez dago elkarriketa aberatsik eta ez dago adiskidantzarik.

Irakurtzea tresna edo baliabide bat besterik ez da. Niri biziki interesatzen zaidana gizabanakoaren eta giza taldeen funtzionamendua ezagutzea da, alderdi askotatik. Helburu nagusia neure burua ezagutzea da, eta inguratzen nauen jendartea ezagutzea. Zertarako? Pertsona osoagoak eta kontzientzia-maila handiagokoak izateko, eta horrela gure elkar bizitza harmoniatsuagoa eta emankorragoa izateko.

Horregatik, azken agurreko artikulu honetan, emakume bat eta bere liburuak gomendatu nahi dizkizuet udarako. Alice Miller, 1923-2010 (*El drama del niño dotado y la búsqueda del verdadero yo. El cuerpo nunca miente. La llave perdida. Por tu propio bien; raíces de la violencia en la educación del niño...* Frantsesez ere erraz aurkituko

dituzte Iparraldekoek. Eta noiz euskaraz honelako liburuak?). Psikoterapeuta honek bizitza gehiena eman zuen hurrek guraso edo helduengandik jasotako tratu txarrek —eta tratu txarrek ez dira bakarrik zaplatekoak eta gorputzeko zauriak!— gerora dituzten ondorio larriak aztertzen: ondorioak norberarentzat helduaroan eta, beraz, ondorioak gizarte osoarentzat (horren haritik Hitler, Stalin eta beste hainbat pertsona publikoren biografiak aztertu zituen).

Gupidarik gabe eta ezin gordina-go astintzen ditu familia, moralak, erlijioa (“Ohoratu aita-amak...” dioen Hamar Aginduetako hori); kritikatzeko du hezkuntza-sistema eta “pedagogia beltza”; larrutzen du gizartean dugun zigor eta espetxe sistema... Gure ohiko iritzi asko hankaz gora jartzen ditu ausardia handiz, besteak beste, genero-indarke-riaren sustraia aztertzen dituenen.

Berarekin ados egon edo ez, zer pentsa handia ematen duenik ezin uka. Baina ez da dena suntsitzera mugatzen, baizik eta eraikuntza osasuntsuak nondik nora joan behar duen ere garbi iradokitzen du. Beraz, animo, eta ea zuei ere niri bezain interesgarria gertatzen zaizuen emakume hau ezagutzea. Bizi pozik... eta ez adiorik! ■



Psikoterapeuta honek bizitza gehiena eman zuen hurrek guraso edo helduengandik jasotako tratu txarrek gerora dituzten ondorio larriak aztertzen

DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Giza katea

EZ DAKIT Katalunian mugaz gaindikotasuna nola lantzen duten, lotura hautsi horiek osatzeko balioko ote duen prozesu politiko berriak, perpyniatarren eskurik ba ote zen giza kate izugarri hartan. Ez dakit hangorik, hemengoak dakidana da herritarren kemena bereziki mugaz alde batean kontzentratu dela, eta aski berant ohartu garelako gu ekimen horren dimentsioak eta erabakitze eskubideak Iparraldean ere izan zezakeen garrantziaz.

Agian, erritmo politikoak ezberdinak direla oso barneratua dugulako, edo alde bateko dinamikak beste aldera pasatzera-

koan halako aduana mental batek gelditze-ko agintzen digulako; akats historikoak errepikatzeko ikara. Izango da tartean ez-ezagutze puntu bat ere. Eta baita Iparraldea hauteskunde giro etengabe batean murgildua ibili dela, hasi herriko bozetatik eta Europakoetaraino. Hori dena egia da, baina, hala izanik ere, uste dut bazuela garrantzia erabakitze eskubidearen mugaz gaindikotasuna lantzeak, eta baduela oraindik ere. Segur aski Iparraldekoogoi dagokigu kate horri begi bat eranstea, hark ere gu ikus gaitzan. ■



DANI BLANCO



Koldo Aldalur

♦ KAZETARIA

Puttetikoak

BAI, PATETIKOAK. Kontua da jakin berri dugula AEBetako golf federazioan oso kezkatuta daudela azken hilabeteotan laburrean bost milioi lizentzia galdu dituztelako. Lizentzia bakoitzak dirutza balio duenez, eta gero golfari izeneko horiek gastu itzela egiten dutenez klubetan, normaltzat jo beharko dugu negozio ikaragarri horren etekina jasotzen dutenak kezkatu egotea.

Itxura txarrekoa da galtzaile itxura ematea. Imajinatu: materialik hoberena eskutan dabilkizu, monitorerik trebeenak gertu, zelairik aproposenak eta milaka entrenamendu ordu zure gainean, eta zure maila hobetu ezin. Zer aipatu behar duzu ibilbidea ehun kolpetik gora amaitu baduzu zelaiaren parra 72 ingurukoa izanik. Nora zoaz 30etik gorako handikap-a jaitzi ezinik bazabiltza? Nola gin tonic bat gozatu aitzakia guztiak orain urte batzuk bukatu bazitzaizkizun? Erremedio txarra.

Baina ia arazo guztiek omen dute hasieran ikusten ez den irtenbidea, eta, hemen ere, aurkitu dute beraia: zuloak lau aldiz handitzea. Bai, lau aldiz handiagoak izango diren zuloak egitea. Zertarako ibili sufritzen helburuak lortu ezinik! Eta lau aldiz handituta ere, baldarrek ez badiutze irribarre eder batekin lanak amaitzen, meteorito baten kolpeak utzitakoaren pareko zuloak egin, eta hala ere ez badago gus-tura uzteko modurik, ozono kapa baino handiagoak egin denak, poz-pozik ordain ditzaten kuotak, material berriak, monitoreak eta gin tonicak.

Bunkerreko hondarretan itoko dira kirolak bere-bereak dituen "baloreak". Esfortzuaren ondorioz lortutako abilitadea, zure

buruari eta gainontzekoei erakustea. Ondo penatu ostean, garai-pen txikienak duen zapore gozoa bakardadean edo lagun artean dastatzea eta ospatzen jakitea. Zure mugak naturaltasunez onartzea. Gainontzekoenak errespetatzen ikastea. Harrokeria arrazoiara makurtzea, umiltzea.

Eta honetan ari naizela beste era bateko kirolariak etortzen zaizkit gogora: kirolaz gozatze hutsagatik, umeak oheratu ostean euritara ateratzen dena korrika saiotxo bat egitera, esate baterako. Inori esplikaziorik eman beharrik gabe, hanka pausoa behartu gabe eta putzuak saihesteko inongo asmorik gabe. Gozamenaren truke, korrika. Eta horrelakoak zientoka.

Ez dakit usteltzen ari den gizarte baten isla ez ote den helburuak lortzeko esfortzuaren balioa ahaztu behar hori

Esaiezu haiei belarriaren ertze-ra euren buruari iruzur egiteko. Seguru ez dakitela kilometroa zenbatean egiten duten, kilometroko zenbat gozatzen duten badakite adierazterik ez badago ere.

Eta ez dakit usteltzen ari den gizarte baten isla ez ote den helburuak lortzeko esfortzuaren balioa ahaztu behar hori. Zuloak handitzean zaila errazago bihur daiteke, baina besteak engainatzen saiatzen den hark inoiz ez du bere burua engainatuko. Ala... bai? ■



BERTSO BERRIAK

Gure esku
dago

Beñat Gaztelumendi



Doinua: Hamalau heriotzena.

Zure eskua hartu
ezkero nireak
zeinek gelditu gure
ametsak, ideak!
Ekar ditzala gure
eskuak bideak:
bueltan demokrazia
ta eskubideak
katea josiz izan
gaitezen libreak.

Manolo Arozena



Doinua: Aita Jainkoak egin banindu.

Jaio orduko lotuta gendun
jaso ezin den katea
batzuentzako mesede dena
euskaldunentzat kaltea
guk ez dugu nahi aterik itxi
edo inora joatea
bakar bakarrik nahi duguna da
gu garenak izatea.

Igor Elortza



Doinua: Uso xuria errazu.

Herritarrak ez al daki
zer estatus, zer lur zati
nola-norekin eraiki?
Ekologian, genero aldetik
finantzatan, kulturalki
nik gutxiago bozkatu nahi dut
ta gehiago erabaki. ■

Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



Bolonia: erditze gaitz baten gaitzak

INFORMAZIOAREN GIZARTEA esaten zitzaion oraindik orain; gero, komunikazioarena... Bizi dugun (bizi gaituen) gizarte modu honen funtsa behar bezala azaltzekotan, ordea, arretaren ekonomiaren gizartean bizi garela esan behar genuke. Garesti dago, bai horixe, jendearen arreta gurean, eta uneoro arreta gune berriak sortu eta eskaini behar dira.

Horregatik da zinema eta telebistako errerealizazioa gero eta zoroagoa, bizpahiru segundotik pasatuz gero jendeak arreta galtzen diolako kontakizunari; eta kazetaritzan ere beste hainbeste gertatzen da. Bolonia Unibertsitate Planak, esaterako, Marshall McLuhan *oteiza* kanadiarraren iragarpena betez, izan zuen bost minutuko bere ospe tarte; gaur egun apenas inork uste duen badela, pastari laguntzekoaz gain, beste boloniar saltsarik.

Boloniak, ordea, aurrera darrai, eta aurrean du, nik ezagutzen dudana esparruan behintzat, lehen erditze masiboa. Hots, egunotan emango zaie unibertsitate titulua duela lau urte unibertsitatean hasitako ikasleei.

Arreta eta ganora hain genero urriak ez balira, une egokia litzateke hau, duela lau urte abiatutakoaren lehen balantze bat egiteko. Ez dirudi, ordea, horretarako prest inor dagoenik, ez unibertsitatean ez kazetarien artean.

Duela urtebete pasatxo hartu nuen erretiroa, EHUn hemeretzi urtez irakasle jardun eta gero. Boloniakoa da ezagutu dudana hirugarren plana. Erretiroa hartzeraz bulztatu nauen arrazoi nagusietakoa ere izan da niretzat Bolonia: infernu bat, orain karrera amaitzeaz dauden ikasleei esker gaintitu ahal izan dudana.

Unibertsitatean lanean ari nintzela, Bolonia kritikatzeko neure buruaren alde ari nintzela interpreta zitekeen, eta horregatik ez diot orain arte gaiari heldu.

Joseba Larrazte

Orain, berriz, argi eta ozen esan dezaket: Boloniakoa, aukera galdua ez ezik, disparate latza izan da, eta da, hemen aplikatu den bezala.

Bere bulego ilunean kukututako funtzionario hitzen batek besterik erabaki ez badu, hezkuntzaren helburu nagusia ikasle jendea mundurako prestatzea da. Alde horretatik, abagune bikaina zen Bolonia, behingoz ikasketak eta gainerako guztiak hartzaile eta bezeroen interesen arabera antolatzen. Tamalez, aukera baliatu ordez unibertsitateko jauntxo-andretxoaren interesen arabera antolatu da dena. Unibertsitatearen gaitz zaharrak (formalismoa, korporatibismoa, feudalismoa, endogamia...) gaiztoago bihurtu ditu Boloniak.

Gaitz zaharrak gaiztotzea gaitz erdi litzateke, ordea. Izan ere, horrez gain gaitz berriak asmatu eta hedatu dira plan berriaren aitzakian. Besteak beste, irakats jarduna hutsaren hurrengo bihurtu digute. EHUn gora egin nahi duenak hobe du eskolak txukun ematen segundo bakar bat ez galtzea, nanogramorik ere ez gastatzea ikasleen beharretara egokitzen. Jakina, ikasleak liluratzea ez omen da irakasleen egitekoa... Ez: boloniar saltsa honetan, irakaslea eta irakaskuntza gaitz erdi bihurtu dira; ikaslea, berriz, gaitz eta erdi.

Erruki ditut ikasleen esker ona sekula dastatu ez duten irakasleak, baina aitortzen dut amorratu egiten naizela ustez ezkertiar, ustez abertzale eta ustez abertzale ezkertiar diren irakasle asko Boloniaren simaurrean aztarrika ikusita, urrezko ezkurra dutela amets.

Horra nire sentimendua deklaratu. Etorriko da, (ez) egon lasai, argudio eta arrazoibideen garaia. Eta zuei, Itziar, Josune, Janire, Lorea, He go i...

animo, bada-
kit-eta hala

ere primeran moldatuko zarete munduan. ■



Urretxu-Zumarragako opera baino gehiago, kultur ondasuna batu duen ekimena

GI 631 herri operak Urretxu-Zumarragako 700 lagunen inplikazioa lortu du, eta musikari, antzezle, gidoilari, irudigile, teknikari eta beste ari da lanean, ilusioz.


Urretxu-Zumarragako Artea deitu diote proiektuari, kultur ondasuna maila guztietan jasotzea eta bultzatzea duelako helburu. Nazioartean ezaguna den musikaria dute antolatzaile eta gidari: Gorka Hermosa. Indar metaketa honen emaitza egun bakar batez izango da ikusgai, ekainaren 21ean, Gernikako Arbola plazan.

| MYRIAM GARZIA |

URRETXU-ZUMARRAGAKO Artea proiektuak produktu asko biltzen ditu herri operaz gain. Besteak beste, *GI 631* film laburra, Jon Plazaolak idatzitako gidoiaz osatua eta Iñigo SBeltzak zuzendua, eta Edurne Iturbe trikitilariak eta Jon Maiak idatzitako abestia; baita diskoa eta bideoklipa ere. Parte hartu duten sortzaile guztiak bailara-koak dira, eta helburu nagusia bertako ondasun kulturala batzea eta bultzatzea izan da.

Ekainaren 21ean taularatu den herri opera urte osoko lanaren emaitza da. 14 musika pieza biltzen ditu herri operak, zenbait estilokoak, erlijiosoa, Iparragirreraren ondarea, rocka, musika elektronikoa... Musikarien zerrenda amaigabea da. Secundino Esnaola Musika eskolako irakasle eta ikasleak, Herriko Banda eta abesbatza, txalapartariak, txistulariak, trikitilariak, jazza eta soula lantzen duten taldeak, Dj-ak eta rock taldeak ditu tartean. Aniztasuna bermatuta dago, beraz.

Oholtzan Jon Plazaolak idatzitako antzezanak hartuko du protagonismoa. Inguruotan jaiotako bi antzezle profesionalak gorpuztuko dituzte pertsonaia nagusiak, Joseba Apaolazak eta Barbara Rivasek, hain zuzen. Izan ere, kanpoan lanean ari diren sortzaileak berriro herrira erakartzea izan baita proiektu



Josu Marotoren ilustrazioa eta herri operaren logotipoa.

honen beste zutabeetako bat. Gainerako pertsonaiak herriko talde amateurretako antzezleek jokatuko dituzte. 700 lagun guztira proiektuaren alde lanean, nor bere mailan eta neurrian, baina denak musutruk. Herrian, herrikoak, herrirako.

Kultur ondarearen ibilbide luzea

Orain dela urte eta erdi inguru, Gorka Hermosa musikariak kontzertua eskaini zuen sorterrian: "Haren ostean, teknikariekin hizketan ari nintzela, herriko kultur ondasuna gertuagotik sentitzeko beharra azaldu nien. Haiek, berriz, herriko sortzaileak proiektu batera biltzeko ideia zerabilkitela erantzun



zidaten. Herri opera bat egiteko asmoa banuen aspaldian, baina ideia besterik ez zen, ideia zoro xamarra, beharbada. Komentatu egin nien, erdi txantxetan, haiek serio hartu ordea, eta handik gutxira horren ardura har nezala proposatu zidaten. Lan izugarria izan da, baina egia esan, oso pozik nauka emaitzak, bertako sortzaileak aurkitu ditut bidean, eta oso gauza interesgarriak egiten dituzte”.

Herriko kultur eragileak elkarrekin lanean jartzea du helburu operak. Gorka Hermosak argi du kultur ondasunari balioa ematea dela garrantzitsua finean: “Gure kulturaren historia kontatu nahi dugu”. Ondasunaz ari direnean, estilo guztiak hartzen dituzte kontuan, klasikoa, herri musika edo rocka izan. Bestalde, arte diziplina ugaritako sortzaileek ere parte hartu dute, eszenografia, argiztapena, jantziak, gidoia eta gainerakoa prest izateko. “Denok batera gaude ikuskizunean, bakoitza bere neurrian”, Hermosaren hitzetan.

CDa grabatu dute dagoeneko, eta entzungai dago plataforma digitaletan. Herri operaren abesti ofiziala, berorren hiru bertsio eta *Azken Borroka dance* abestiak bildu ditu CDak. Herri operaren ereserkitzat hartu dutena, *Baina bihotzak dio* abestia, Edurne Iturbe trikitilariak konposatu du eta hitza Jon Maia bertsolariarena da. “Maia sortzez inguruotakoa da. Ilusio ikaragarria egin zion eskaerak”.

Fikzioa ala errealitate hurbila?

Agerraldiko hari narratiboa idaztea Jon Plazaolari egokitu zitzaion. *GI 631* antzezlanaren istorioa futurista da, 2383. urtean kokatua. Etorkizun postnuklearrean, mundu suntsitua Nazio Handia izeneko erakundeak kontrolatzen du. Pentsamendu eta kultura

Herri operaren aurkezpena. Zelai Arizti aretoa mukuritu bete zen.

uniformea ezarrita, tokian tokiko nortasunaren ezaugarriak galdu dira. Egun batean, *GI-631* eremuko erresistentziako bi kidek Irimo mendiko gurutzea aurkituko dute, eta aurkikuntza abiapuntutzat hartuta, bidaia egingo dute denboran atzera. Bi herrietako kultura berreskuratu eta etorkizunera bueltatzea dute helburua, *GI-631* berriz ere Urretxu-Zumarraga izan dadin. Baina 027 Nazio Handiko Agentea izango dute atzetik, plana galarazteko asmoan.

GI 631 izenak ere badu bere arrazoiak: “Etorkizunean kokatutako istorioa denez, gure herriei zenbakiz eta hizkiz osatutako izena jarri nahi genien, eta bat-batean hortxe aurkitu genuen izena, Urretxutik Azkoitiara dihoan errepidean”, dio Plazaolak.

Hiru pertsonaia nagusi ditu antzezlanak: 027 Agentea (Joseba Apaolaza), 315 (Barbara Rivas) eta 281 (Jon Plazaola). Horiez gain, beste bi aktore ere izango dira, trama txiki paralelo batean: 631 (Ines Benitez) eta 010 (Edu Aparecido). Iparragirrerena, berriz, Juanlu Eskuderok egingo du. Iñigo SBeltzak zuzendutako film laburrean ere aritu dira antzezleok, denak bolondres.

Herritik herrirako egiten den ekimena da herri opera, eta honek grina piztu die Urretxu eta Zumarragako biztanleei. “Herriko taberna denetako oholtzak ezagutu ditut baina hau besterik da. Herri Opera izeneko munstro zoragarri honen atzean 700 inguru lagun ari gara buru-belarri, pentsa zein dimentsiotan ari garen”, jarraitu du idazleak.

Irudi gaurkotuak

GI 631 film laburrak emango dio hasiera eta amaiera herri operari. Irudiak sortzen Vanessa Blázquez argazkilaria aritu da: “Nire burua amateurtzat daukat, eta beraz, Gorka Hermosa, Josemari Alemán, Jon Maia, Joseba Apaolaza eta halako mailako artistekin lan egitea zoragarria da. Izugarri ari gara ikasten. Talde lana zaila da, eta nork bere egoa alde batera utzi behar du”.

Vanessa Blázquezen aburuz, “700 pertsona elkartzeko eta hainbeste artisten lana batzeko, 3 ezaugarri antzeman ditut: umiltasuna, errespetua eta elkarlana. Hori, norberari dagokionez. Ikuskizunaz ari bagara, hasteko eta behin, istorio on bat behar da. Lehenengo, jendea ez aspertzeko, eta bigarrenik, osotasunari zentzua emateko. Azkenik, parte-hartzaileentzat erakarri izan dadin”.

Blázquezek herriko beste argazkilaria batzurekin jardun du. “Herriko argazkilariek musika emanaldietan jokatu dugu gure rola.

musikariek jotzen duten bitartean, atzealdean gure irudiak proiektatuko baitira. Gure lana gaika banatu dugu: paisaiak, arte erlijioso eta zibila, eskultura erlijioso eta zibila, arkitektura... Zerrenda itxi horretan bakoitzak bere ikuspuntutik egin ditu argazkiak. Ikusgarria da eraikin bakar bat zenbat eratan aurkez daitekeen. Niri zirrara egiten didan lekua Antio da. Badu zer edo zer berezia, beharbada paisaia: Aizkorri eta Aralar mendikateak, Irimo aurrean... Egusentian eta ilunabarretan argi magikoa dago eta argazkiak ateratzeko gustukoen dudatan txokoa da. Gainera, aipatzekoa da Paco Vierbücher argazkilariaren parte-hartzea, bere argazki zaharren artxiboa, hori bai altxorra! Berak eta batez ere bere aitak XX. mendeko historia kontatzen digute argazkiaren bidez. Eskertzekoa da argazki horiek herri operari utzi izana”.



VANESSA BLÁZQUEZ

Musikari egun batez

Secundino Esnaola Musika Eskolako ikasleek eta irakasleek ere parte hartuko dute. Atal klasikoa onduko dute, Herriko musika banda eta abesbatzarekin batera. Jon Goenagak (piano eta lengoaia musikaleko irakaslea), Edurne Iturbek (trikitixa irakaslea) eta Edorta De Pedrok (Big Bandaren arduraduna), operan aurkeztuko diren obren konponketak egin dituzte. Edurne Iturbek, gainera, musika jarri dio operako ereserkiari.

Grabatzerakoan, bestalde, 48 haurren ahotsak hartu dira kontuan. Eskolako zuzendari Josune Agirrek dioenez, “motibagarria izan da haien zat, estreinakoz estudio-ara heldu baitira”. 10 urtetik gorako ikasleek

Gorka Hermosa
musikariak eraman
du proiektuaren
ardura.

esku hartu dute, eta haien irakasleek. 25-30 pertsona inguru izango dira gutxi gorabehera, operan. Bestalde, eskola honetako irakasle askok dihardute antolaketan, zuzenean edo zeharka.

Hamalau obra joko dira operan, Josune Agirrek dioskunez. “Esperientzia aipagarria da, dudarik gabe, horrelako muntaketa bateko parte izatea. Nork bere lana erakusteko aukera ezin hobea da eta jendaurrean jotzea zer nolakoa den jakiteko aukera emango die. Urduritasuna kontrolatzen ikasteko era oso egokia da, eta musikariaren bizitzan pasa beharreko abagune oso positiboa”.

Baina musika klasikoak ez ezik, bestelako musikak ere izango du tokirik. Aitor Aranguren edo Dj Kiztek esate batera, *Baina bihotzak dio* abestiaren remix-a egin du CDra eta, eta operan ere parte hartuko du: “Poz handiz, orain arte egin

dudana gainditzeko aukera eman baitit. Izan ere, horrelako proiektu batean parte hartzen dudana lehenengo aldia izan da. Beste musika moldeetatik datozen pertsonekin elkarlanean aritzea berria izan da niretzat, eta, bestalde, ez dut inoiz trikitixaren soinuarekin abestirik egin. Horregatik, erronka izan da; gustura hartutakoa”. Aitorren erreperitorioak, batik bat, musika elektronikoa du oinarria; Deep-Tech eta Dub-Techno azpigereneroetan kokatzen dira, oro har, bere abestiak. *Baina bihotzak dio* abestian trikitixaren melodia eta bere soinuak fusio-natu ditu remixean. Zuzenekoan, *Azken Borroka dance* abestia sartuko du. ■



Babeslea: Urretxu - Zumarragako udalak

Sustraietara bidaia. Urola Garaia.

Santa Barbara
Urretxu
Atxepetxea, natur parkea, jatetxea...

Antio
Zumarraga
Ermita, interpretazio zentroa, jatetxea...

Helduen Literatura

Hamairu ate
Askoren artean

Itzultzaileak: Joseba Sarrionandia eta Mitxel Sarasketa.
Elkar, 1985

Betetzera jarrita

LITERATURA ZULATUA izateak hori dauka, hutsuneak nolabait bete beharra. Eta sartzen direla tarteka tartean bestela nekez sartuko liratekeen gauzak. Adibidez, erdal umore beltzaren antologiak. Luze gabe, *Hamairu ate* izeneko hau, zenbakiak hatxerik ez zeraman garaikoa. Aukeraketaren arduradun, bi: Joseba Sarrionandia eta Mitxel Sarasketa, berdin arduradun itzulpenarenak. Argitaratu urteari begira, presondegian ondu zen antologia. Presondegiko baldintza eskasekin, pentsatzekoa da. Hauxe utzi zuen emaitza: ipuin motz-motzak batzuk, are motzagoak besteak –pentsa, aforismoren bat ere bai noizean behin, Francis Picabiaren hau esatera: “Mirestea, gaitzestea bezala, arrazoi txarren gainean eraiki ohi da”–; eta guztiak ere egiazkoena omen den umoreen artean beltzenari dagozkionak. Autore batzuk ezagunak, Franz Kafka edota Gabriel García Márquez. Beste batzuk erreferentziak, Ambrose Bierce edota Pere Calders. Beste batzuk gehiago ezagutu beharrekoak, Saki edota Max Aub. Eta beste batzuk harrigarriak, Kostas Axelos edota Gonzalo Suarez. Eta gehiago, noski hamahiru guztira. Gainontzekoak deskubritzea –adibidez, Leonora Carrington–, hori bai, utziko dugu irakurlearen eskura.

Segidarik izan ez zuen “Erdal umore beltza” saileko ale bakarra –lastima!–, liburua berez ez da gauza handia; esan nahi dut, erdal umore beltzak mereziko lukeela antologia txukunago bat euskaraz. Adibidez, *Anthologie de l'humour noir* hartara gerturatuko litzatekeen zerbait, hemengo hitzaurrean aitortzen den bezala, “klasikoa eta eredu delako, Andre Breton surrealistarena” –hainbesteraino klasiko eta hainbesteraino eredu, hango autore-testu batzuk hemen ere aurkituko ditugula, Picabia, Kafka, Carringtonenak–. Eta Gonzalo Suarezek badu ipuin bat nabarmena, *Non lurra esferikoa dela frogatzeko* izeneko. Pere Calders, oro har, beti, da



DANI BLANCO



garantia, eta *Trena* eta *Hautsetatik gatz eta* gogotan hartzeko modukoak. Eta Kostas Axelos izango da, sorpresa atseginena izateaz gain, antologiako guztien artean finena. Baina izenburuak ondo islatzen du antologiaren izaera, orokorrean antologia batena: ate bat eskaintzea, ate bana, kasu

honetan hamahiru autoreon obra ezagutzeko. Gontzibita da antologia. Eta, hartara, eskuarte duguak betetzen du bere funtzioa.

Literatura zulatua izateak hori dauka, hutsuneak nolabait bete beharra. Eta sartu beharrean erdal umore beltzeko ale gailenak zuzenean, sartzen direla tarteka tartean bestela nekez sartuko liratekeen antologiak. Ate forman sartu ere, funtzioa beteta, hutsunea neurri batean betetzera jarrita. ■

Aritz Galarra





Musikazaleontzako opari errebeldea

“KRISI EKONOMIKOA eta hedabide tradizionalena bizitzea egokitu zaigu, eta bi aukera geneuzkan: etxean gelditzea edo errebelatzea. Bigarren bidea hautatu dugu”. Martxelo Otamendiren hitzok ezin hobeto definitzen dute Berria Taldearen apustu ausart bezain beharrezkoa: Berria.info eta Badok.info webguneen berritzea. Ikusmira sortu du nobedadeak, eta gehiago jakin nahian, ia 200 lagunek bete genuen Donostiako San Telmo museoko Abadia.

Euskarri digitalean zein paperean *Berriak* izan(go) dituen aldaketak zerrendatu zituen Otamendik, ohi bezain mihi eta buru biziak. Baina hitz errenkada hauek kultura saileko (web-)orrian ari zara irakurtzen, eta ondorengo lerroak Badok.info-ren aurkezpenari eta gaua borobildu zuten musikariei eskaini nahi nizkieke; musikari eta musikazaleontzat egun seinalatua izango baita iragan maiatzaren 27a.

Jon Eskisabel da “euskal musikaren atari” berritua konposatu duen orkestraren zuzendaria, eta hark izan zuen erreminta berria aurkezteko ardura. Bere hitzetan, “Badok zaharra garai analogikorako egina zegoen, eta oraingoa aldiz, garai digitalera egokitua dago”. Jarraituko du euskal musikagintzaren datu-base osoa izaten, baina izango da hori baino gehiago ere.

Berrikuntza nagusia sarean dagoen euskarazko musika guztia webgunean bertan entzuteko aukera da: garatu duten teknologiarik esker, Soundcloud, Bandcamp, Spotify eta beste hainbat plataforma digitaletan dagoen musika guztia atarira eraman dute. 11.000 kantutik gora daude jada entzungai. Badira berrikuntza gehiago ere, baina horiek ezagutzeko ataria bera miatzea duzu onena.

Aurkeztepenen osagarri, azken urteotan Euskal Herriko eszenatokietan ikusi ditugun aurpegi eta

proiektu (jada ez horren) berriak gonbidatu zituzten, webgunearen ekarpen handietako bat halako taldeak ezagutaraztea izango baita.

Jon Basaguren, Izaki Gardenak taldeko ahots eta burua, izan zen gauari doinua jartzen lehena. Fin aritu zen, baina hotz xamar, hiru abesti soilik kantatu zituen ez baitzuen berotzeko astirik izan. Ruper Ordorikaren *Ene Begiak* kantaren bertsio ederrarekin agurtu eta lekua utzi zien hurrengo gonbidatuei: Tania de Sousa eta Fermin Bouzari.


Zuloak proiektuan ezagutu genituen Tania de Sousa eta bere ahots indartsua, eta bertan ikasitakoarekin bakarkako proiektuari heldu dio orain. San Telmoko izan bere abestiak zuzenean entzuteko lehenengo aukera, eta duo akustikoan eskaini zituen abesti bakanek gehiago jakiteko gogoz utzi gintuzten. Uztailaren 8rako Donostiako Piratex antolatu duten jaialdian talde osoarekin –laukotea dira– ikusi ahal izango dugu, Manu Chaoren kontzertu sonatuaren aurretik. Orduan ezagutuko dugu Tania de Sousaren lanaren potentziala eta maila.

Hirugarren eta azken emanaldia izan zen ikusleak oholtzara gerturatzea lortu zuen bakarra. Neighbor osatzen duten Maite Larburu hernaniarrak eta Josh Cheatham estatubatuarrek arratsalde-gaua borobildu zuten. Bizibide duten musika barrokotik urrundu eta pop-folk kutsuko diskoa kaleratu zuten pasa den urtean: *Ura patrikan*. Azken boladan euskal eszenatokietan izan den agerpen interesgarrienetakoa dira. Oraindik ezagutzen ez badituzu, Badok erabiltzen hastea duzu onena. ■

**Lander Arretxea
Bereziartua**



Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. ... egin, hozkatu. Ontzietako haga. 2. **Argazkiko herria**. Rhesus faktorea. 3. Gar. Higuin, gorroto. 4. Olibaren zukua (pluralean). Nahia, desira. 5. Mila eta bostehun, zenbaki erromatarrez. Miao eginez Iskanbila, zalaparta. 6. Joera, zaletasun. Bizikleta lasterketa. 7. Odol ahulezia, globulu gorrien urritzea. Gogoratu. 8. Nafarroako herria. Okertasun.

Goitik behera:

1. Itzulinguru. 2. Orakada. 3. Donari, golardo. Hasi aditzaren infinitiboa. 4. Kilometro. Ospea, entzutea. 5. Doinu, melodia. 6. Miatuz. Bi mila, zenbaki erromatarrez. 7. Begirada (alderantziz). Gogo bizia, irrika. 8. Lekuak. 9. Sabelak. 10. Aurpegiaren atala. Enbor. 11. Faltsu. 12. Ukapena. 13. Begiaren eraztun. 14. Elkartu. 15. Landare mota.

Sudokuak

Erraza

	9	8						1
3	1	4	8					5
6		7		1	3			
1			5		2	6	7	9
		5	3		6	1		
9	4	6	1		8			2
			2	3		5		6
5					9	4	1	7
4						2	8	

Zaila

1		9	5					
6		4		7				
8	3					4		
3			7					
		8	3		6	2		
					1			6
		6					4	2
				2		7		9
				9	5			1

Kike Amonarrizen umorea

Zelaiaren finantzazioa

Gipuzkoako herri batean futbol zelaia berri nahi zuten, baina arazo larriak zituzten behar zuten dirua lortzeko.

Konponbidea aurkitu nahian, klubeko lehendakariak ezohiko batzarra deitu zuen. Honela hasi zuen hitzaldia:

- Bi albiste eman nahi dizkizuet: bat ona eta bestea txarra. Nondik hasiko naiz?
- Onetik! –baskide guztiek.
- Obrak finantzatzeko behar dugun dirua badugu...



JORGE ANDRADE-CC BY

Baskide guztiak oihuka eta txaloka. Bat-batean, aretoan atzeko aldetik galdera:

- Eta txarra?
- Behar dugun dirua zuen patriketan dagoela!

Soluzioak

4	6	9	7	1	2	8	3
5	3	2	6	8	9	4	1
8	7	1	2	3	4	5	6
9	4	6	1	7	8	3	5
7	2	5	3	6	9	1	4
6	5	7	1	3	8	2	4
2	9	8	4	6	5	7	3
3	1	4	8	2	7	9	6

Erraza

2	7	3	4	6	9	5	8	1
5	4	1	8	2	3	7	6	9
9	8	6	1	5	7	3	4	2
7	6	5	2	4	1	8	3	6
4	1	8	3	9	6	2	5	7
3	6	2	7	8	5	9	1	4
8	3	7	6	1	2	4	9	5
6	5	4	9	7	8	1	2	3
1	2	9	5	3	4	6	7	8

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Kosk, Masta. 2. Armatu, Rh. 3. Kar, Hasia. 4. Olibak, Opa. 5. Mld, Mlaka. 6. Bulia. 7. Alhet, Zilikokros. 8. Otsa, Makturatsun. **Goitik behera:** 1. Kakomako. 2. Oraldi. 3. San, Has. 4. Km, Omema. 5. Alhare. 6. Mlaka, Mm. 7. Aoa, Uza. 8. Tolak. 9. Tripak. 10. Ahua, Lor. 11. Bort. 12. Ukoa. 13. Ihs. 14. Lout. 15. Asun.

Zer izan garen eta zer izan nahi dugun, horra transmisioa

2014 Urruñako Kabalkada
Zintzarrotsak

Sortzaileak:

Gerard Urrutia,
Joseba Aurkenerena eta
Zelin Duperou

Non: Urruñako Pilota plazan;
(Lapurdi).

Noiz: ekainaren 7 eta 15ean.

BADAGO ZER EGINA, badago zer ikasia, badago zertaz kexa... Nola adierazi, ordea? Transmisioa landu behar dugu herritarrok, harremanak sakondu, hor dago gakoa. Sustrai eta Odei urruñar bertsolarien hitzak dira horiek. Izan garena eza-gutu behar dugu, izan nahi duguna zehazteko. Horratx, Urruñako Zintzarrotsak ikusgarriak helarazi dizkigun lemak.

Gaiak ez dira eskas Euskal Herrian, Urruñak lekuko: Santa Flora parkea, Conserver XXI enpresa edota Berttoli elkarte iraganen, hala AHT, nola Euskara edo Gaztetxea gaur egun. Sujetak ere franko: jauntxo zakilak zein herritar porrokatuak.

Ttote Mendigaine laboraria eta Sakelbero bankaria entzun genituen AHT karioaren karietara. Laborariak zirtzilak lagun zituen, bankariak jendarmeak. Jauntxoa Parisera fite joateko presaz, herritar xumea ama lurrari lotu beharrez. Entzun genituen halaber –euskara auzitan–, Finfin amiñi mentsa eta *mademoiselle* ukatzaile harroputza. Ibai Gorri eta Larregorri herritarrek elkarri mokoka jardun zuten ondoren. Euskara gibelera eramaten gaituen zozoen hizkuntza dela zioen frantximentak, gazteak irmo egin zion buru, kolonizatzaileari.

Mari Kutzu andereak istorio ilunak ekarri zituen plazara: Santa Flor bilakatutako Florenia eta Conserver XXI. Michelle Alliot-Marie ministroaren arima zitala sumatu genuen airean. Iraganeko eskrokeria edo



MIKEL ASURMENDI

Mahai erdian jujea, uxera eta abokatua alboan dituela. Musikariak eta kantariak hondoan. Hedexuriak eta zirtzilak izan ziren animatzaile bizkorrenak.

iruzurren usainak ez dira plazatik uxatu oraindik ere. Herritar anoni-moa ere mintzatu zen, bere izena azaltzeko beldur. Berttoli herriko elkartearen izan ziren auziak ez dira kitatuak. Metrailetak ez ezik, misilak ere gordetzen omen zituzten bertan. Uxerak –estatuaren prokuradoreak edo fiskalak– ez ditu aise ixten iraganeko dosierak. Egungo gazteriarri mesfidantzaz so egiten diote jauntxoek zein agintariak. Espetxeak hustea eta Gaztetxea eraikitzea eskatu zituen Iluna gazteak.

Hiru gertaldi jokatu ziren, hainbat gai edo afera epaitu, eta hainbat aktore aritu. Batzuk hobeto bestetzek baino euren rolean. Transmisioa landu beharrak ageri. Ikusleen artean zegoen Antton Luku antzerkigilearen eleok burura heldu zitzaizkidan: “Ene kezka transmisioa da, aktorea sortzaile bilakatzea”.


“Ezina ekinez egina” lemak uxatu zituen etsipen lipartxo horiek. Jujea, uxera eta abokatua deliberoa hartzerare erretiratu ziren plazatik. Zirtzilen

eta hedexurien –jendarmeen– arteko liskarrek bizkortu zituzten ikusleen arimak. Musikariaren kantuek berriz, iragana eta geroa uztartu zituzten oraina goxatuz. Dantzariak zintzarriak inarrosi zituzten kabalkadaren erritmora. Bertsolariak gaiak eta hitzak lerroan eman zituzten berriz ere: “Esperantza” eta “jakintza” erri-matu zituzten finitu aldera. Erabakitzeari gure esku dagoela adierazi zuten. Eskubideak ez direla aldarrikapen soilak, eskubideak egunero ekinez gauzatzen direla ezinbestez.

Jujearen deliberoak ezagutu genituen azkenik: herri aldarrikapenen aldekoak, zentzuzkoak. Herritarrok eskubideok geure egiten ikasi behar dugu, ordea. Neroni azken epaia muturrekoa iruditu zitzaidan: jujeak uxera kalitzea agindu zuen. Justizia ez da jujeen esku soilik, ez jakintsuaren ez mentsuaren esku ere. ■

**Mikel
Asurmendi**





Euskal Herria ezagutuz

HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

Haitzen gibelean, itsaso gainean

Magaletik magalera. Hondarribiko kaitik Pasaiko farolara. Ur tantei so, harkaitzetan barna. Tartean Jaizkibel, haitzezko kutxa zabala. Historiako altxorren gotorlekua. Natura 2000 sareak babesten duen gunea. Bidean itsasargien argi-itzalak, gerren oihartzunak eta naturaren kantu bizi-bizia ditugu zain. Zelaietan igerian, behatzekin itsasoa ukitu litekeen mendian.

Testua eta argazkiak:

| ENERITZ IRAOLA ODRIOZOLA |



HONDARRIBIKO KAIAN hasiko dugu ibilbidea. Batel ttikiak *Tuku-Tuku*, *Pittar* eta *Kuku Harri* ontzi handien ondoan dira dantzan. Arrantzaleen Kofradia eskuineko aldean utzita aurrera egingo dugu, gauetako itsasontzien gidariaren bila. Higer lurmuturrean eta itsasargian dugu lehenbiziko geltokia.

Gutxik dute aukera itsasargia barrutik bisitatzeko, baimen berezia behar delako. Ederra da harrizko eskaileretan barna igo eta enaren pareko sentitzea. Urdina nagusi eta ingurua berdez tindatua, iratzeek janzten dute Higer. Farolaren goiko

aldetik Amuitz uhartea ttiki bezain eder ageri da. Pare pare, Lapurdiko kostalde zabala dugu ikusgai.

Eskaileretan behera, kanpinerantz abiatuko gara, errepidearen amaieran hasten den xendra hartzeko. Itsasertzetik goaz aurrerantz, kostaldea lotzen duen Talaia bidean. Bidexka ugari aurkituko dugu, erdi ezkutuan dauden kaleetara garamatzatenak. Lamien bila hasi nahi baduzue, aurrera, baina adi marea aldaketekin.

Bide nagusiari segika bidegurutze batera iritsiko gara. Eskuinerantz behera doan bidexkatik Artzuko Portura goaz, erromatarren ontzien

atsedenlekua izan zenera. Artzuko Errota izenez ere ezaguna da ingurua, bertan zegoen errotagatik. Kalara doan erreka indarra baliatzen omen zuten garia eta artoa chotzeko.

Balio ekologiko eta geologikoa

Karramarroen gisara atzera egin eta bidegurutzera itzuliko gara, bide nagusiari segika Guadaluperantz abiatzeko. Bideak ez du galbiderik eta aurrera joan ahala, Jaizkibelen magaletik goranzko bidea egiten ari garela nabarituko dugu. Nazioartek babesten duen eremuan gabil-tza, begiak erne beraz, balio ekolo-

Ezkerrean, Amuitz uhartea. Eskuinean, Santa Barbara dorrea. Goiko argazkian, Higerko itsasargia.





Ezkerrean, Hondarribiko eta Hendaiaiko hondartzak, Jaizkibetik ikusita. Eskuinean, Artzu baserria.

giko eta geologiko handia duten bitxiak ditugulako bazter orotan.

Tipi-tapa, Guadalupeko Gotorlekura iritsiko gara. Defentsarako eraikia izan zen 1900ean. Barruan dituen sekretu guztiak ezagutzea ia ezinezkoa den arren, gotorlekuaren barrunbeetan bisita gidatua egiteko aukera dugu Hondarribiko Udalaren Arma Plaza Fundazioaren eskutik.

Barrutik kanpora begiratzuz gero, aski ezaguna da kaskoan XV. mendean eraikitako Guadalupeko Ama-birjinaren Basilika. Ez da horren ezaguna basilikatik hurbil dagoen tabernari buruzko historia. Justiz edo Guztiz Ederra izenez ere ezaguna den baserria, garai batean, Antso Abarka erregearen babesleku bihurtu zen, erregea etxe hartako zerbitzari batekin maitemindu zelako.

Artzuko Matxinen historia

Tabernatik kanpora begiratu eta kartel zurian, kolore berdez irakur dezakegu bisitatu beharreko

hurrengo baserriaren izena: Artzu. Bertako seme zen Matxinen balentriak egin zuen ezagun etxea. 1280 inguruan, Frantziako eta Gaztelako erregeek Hondarribian izandako borrokaldian, Matxinek gaztelarrei lagundu zien. Inguruak ondo ezagutzen zituen eta gauzez soinuak ez egiteko zaldien apatxak estaltzea ere otu zitzaion. Gaztelako tropek mendean hartu zituzten frantsesak eta Matxini esker ona adierazteko, armarri bat oparitu zion Gaztelako erregeak Artzuko semeari.

Baserriaren aurrealdean keinuka ari zaigu Jaizkibelgo gaina. Hara igotzeko Guadalupeko aparkaleku nagusira itzuliko gara, eta bertatik ipar-mendebalderantz joko dugu. Errepidea zeharkatu eta nabarmen egiten du bideak gora. 1872 eta 1876ko Karlistaldian eraikitako dorreak topatuko ditugu bidean. Erramotz gainean, Santa Barbara Dorretik norbait zelatan dugula dirudi. Txingudiko badiaren ikuspe-

gi paregabea goza liteke bertan dagoen begiratokitik.

Telekomunikazio-antenak agerian, gailurra gero eta hurbilago dago. Igo ondotik, Xangasiko dorrearen eta beste bi dorrearen ondotik igaro beharko dugu, eta eskuinera dagoen bidexkan behera joango gara, errepidera iritsi arte. Mitxintxolako gaina dugu ibilbideko azken igoera. Bertatik ikus liteke Pasaiaiko herria. Mendebalderantz hartu eta marra zuriei segitu beharko diegu. Gailur malkartsuotan arreta handiz ibiltzea komeni da. Bideari segika ez dago galbiderik. Portuko semaforoak eta farolak seinalatuko digute helmuga: Pasaiaiko magal goxoa. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



Irtenbideek zalantzak sortzen dituzte Fukushima

FUKUSHIMAKO zentral nuklearra lehertu zenetik hainbat bidetatik barreiatu da erradioaktibitatea. Hasieran, leherketa gertatu zenean, atmosferara gas bidez barreiatu zen, baina geroztik ura du garraiobide nagusi.

Hiru urte daramatzate zentralako bihotz nuklearrak ureztatzen, tenperatura kontrolatu nahian. Ur horren zati bat gas bihurtu eta atmosferara isurtzen ari da. Gehiena, berriz, lurlean zabaltzen da, eta inguruko zorua eta ura kutsatu ondoren itsasoratu egiten da, hori ere kutsatuz noski. Uraren zati bat biltzen badute ere, denboraz biltegiak kaltetu eta urak isurtzen segitzen du.

Nazioarteko presioari esker eta batez ere AEBen haserreari esker –isuritako ura Ozeano Barea zeharkatu eta AEBetara ailegatzen ari baita–, interesgarriak izan daitezkeen hainbat neurri teknologiko hartzen ari da TEPCO, Fukushima enpresa kudeatzailea. Horietako bat zentralaren inguruan izotz geruza bat sortzea da. Ekainaren lehen astean hasiko dira

KYODO / THE JAPAN TIMES



Sistema experimental honen bidez, hormak izotzuta dauzkaten hamar metro koadroko zoru zatiak jarriko dituzte.

izotz geruza eraikitzen, eta 2015eko martxoan amaituta behar luke. 1,5 kilometroko luzera izango du, eta eraikitzeko 30na metroko luzera duten 1.550 hodi lurperatuko dituzte. Horien inguruan diametro txikiagoko tutu-sare bat ezarriko da, likido hoztaileak zirkulatzeko.

Horrela, lur eremu zabal bat izoztea eta horri esker eremu horretako ura bertan harrapatuta geratzeko espero da. Itxuraz ez da ideia txarra, baina gero eta zientzialari gehiagoren arabera, harrapatutako urak lurraren trinkotasuna ahulduko du eta ondorioz gune nuklearreko egituren zutabeak kaltetu egingo dira. Arazo bat kontrolatzeko larriago bat sortuko ote dute? ■



2 motako diabetesa izateko arriskua neurtu daiteke test baten bidez

Europako populazioaren %5ek baino gehiagok 2 motatako diabetesa du, edo garatzeko arrisku handia du. Frantziako Estatuan lau milioi lagunetik gora dago ataka horretan, eta Espainiakokan hiru milioi baino gehiago. Ondoko loturako test errazaren bidez, gaitz hori izateko duzun arriskua neurtu dezakezu.

ttiki.com/66430
(Frantsesez)

Izpi ultramoreetatik babesten gaituen mekanismoa, argituta

Jakina da melaninak gure larruazala, begiak eta ilea babesten dituela eguzkitik heltzen zaizkigun izpi ultramoreetatik. Hala ere, berriki arte ez da jakin melaninaren zer ezaugarri ematen duen babes hori. Massachusettseko Teknologia Institutuko ikerlariek egin dute aurkikuntza.

ttiki.com/66431
(Euskaraz)

Eguzkiak Lurrean eragiten duen korrante elektrikoaren azterketa

Eguzkian gertatzen diren leherketen eragina bizpahiru egun ondoren nabaritzen dugu Lurrean. Lurreko geomagnetismoak gorabeherak izaten ditu eta horien ondorioz lurrazaleko azpiegitura handietan, trenbideetan, elektrizitate-sareetan... korrante elektrikoak sortzen dira. Batzuetan oso handiak izan daitezke.

ttiki.com/66432
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera


web garapenak


multimedia


aholkularitza


edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Errexalen borroka

HITZ EGITEN duten zuhaitzak. Bai, ba omen dira, bai. Hala diote Michael Pagek eta Robert Ingpenek, 1987an argitaratutako *Encyclopedia of things that never were* (Sekula izan gabeko gauzen entziklopedia) liburuan. Behatzeko, pentsatzeko eta gogoetarako denbora asko dute, eta zenbait zuhaitzek erantzun egiten omen diote maitatuaren leialtasunaz dituen zalantzak argitzeko galdezka hurbiltzen zaion maitaleari.

Lehenengo euskararako hiztegia omen dena egin zuen Nicolao Landuchio idazle italiarrak, 1562an. Bertan garaiko arabar dialektoko hitz bitxiak jaso zituen. Horietako bat da “errexala”. Errexalak “zuhaitza” esan nahi omen du. Ficua errexala (pikondoa, *Ficus carica*), sagarra errexala (sagarrondoa, *Malus x domestica*), castanea errexala (gaztainondoa, *Castanea sativa*) eta abar aipatzen ditu. Zurzuria edo eltzun zuria (*Populus alba*) eta makala edo eltzun beltza (*Populus nigra*) euskaraz “errexal çuria” eta “errexal valça” jasotzen



LÁSZLÓ SZALAI

Makala, *Populus nigra*.

ditu. Horiek izango ote ziren arabarrentzat zuhaitzen eredu edo nagusi? Bizkaitarrentzat zuhaitz guztiak izendatzeko hitza “hari-tza” izan zela dioten bezala.

Izan ere, zenbat hitz dugu zuhaitz esateko! Errexala, zuhaitza, arbola, zuhamua, zugatza, zuharz, zugamua, zuharrondoa, zuhagua, zumarra, zuhartxa, zuhain, zuhaintze, zuhantz, zurzai, zugetz, zukoitz, zuhamutze, zunaitz, zuraitz, zurtzai, zuhartz, zuhatz, zugar, zunar, zuharz, zuhartze, zuhatz, xuhartz, zuspil, zuhaixka, zagai, ezkur, eskur...

Zuhaitzaga, zuhaiztegi, zuhatzo, zuhatzu, zuhazti, zugarraga, zugarreta edo zuhaizti, zuhaitz multzo ederrak osatuko zituzten garai batean. Gero izenen borroka, gaurko “zuhaitz” eta “arbola” parera iristeko.

Afrikar esaera batek honela dio: basoan, zuhaitzen adarrak borrokan ari diren artean, sus-traiak besarkatu egiten dira. Itxuraz, inoiz aurkitu izan da, moztutako zuhaitzen baten ipurdia, motzondoa edo epaitondoa, elikatzeko inolako hostajerik gabe, urtetan eta urtetan bizirik, aldameneko zuhaitzen elkartasunari esker. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, *Valerianella locusta* sendabelarraren euskarazko izena zein ote den jakin nahian gabiltza. Eskertuko genizuke zure laguntza. Mila esker.

Pili Otaegi (Larraul)

Kaixo Pili. *Valerianella locusta*-ri gazteleraz “hierba de los canónigos” eta frantsesez “mâche” deitzen diote, beste izen askoren artean. Belar horren landutako aldaera da gaur egun “canónigo” izen soilaz ezagutzen den entsaladetarako gaia. Galegoz “untxien uraza”, portugesez eta ingelesez “bildotsen uraza”... Euskaraz bi izen aurkitu ditut: ardi-mihia eta soldadu-belarra. Lehena da gehien erabiltzen dena. Lakoizketa handiak



JAVIER MARTIN

1888an idatzi zuen bigarren izena 1793an Nafarroa Garaian sartu ziren soldadu frantziarrei zor zaiela. Haiek ekarri zuten belarra, nonbait, eta Bertiz haranean izen hori geratu. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Zergatik erabiltzen dira eskularruak hilketa baten gertalekuan?

EAST SUSSEX LIBRARIES



PARAMOUNT PICTURES



Ezkerrean, Patrick Mahonek Emily Kaye hil zuen bungalowwa. Alboan, *Rear Window* (1954) filmaren bi protagonista nagusiak, James Stewart eta Grace Kelly, eta zuzendaria, Alfred Hitchcock.

SUSSEX, 1924KO APIRILAREN 15A. Patrick Mahonek bere maitale Emily Kaye hil zuen. Kaye 37 urteko mekanografoa zen. Mahon ezkontuta zegoen arren, andrezale amorratua zen, eta ordurako ezaguna zen hainbat lapurreta eta iruzurrengatik. Mahonek elkarrekin Hegoafrikara ihes egingo zutela agindu zion Kayeri, eta ihesaldia prestatzea aitzakia gisa erabili zuen mekanografo xaloari aurreztutako sosak eskatzeko. Mahonek ez zuen hitza betetzeko asmorik, eta maitaleari ahal zuen zuku guztia atera zionean Sussexeiko konderriko bungalow batean asteburu erromantikoa igarotzeko proposamena egin zion.

Hurrengo astelehenean Emily ez zen lanera itzuli. Patrick, aldiz, emaztearekin etxera itzuli zen. Baina handik egun batzuetara, Mahonen emazteak Waterlooko geltokiko kontsignaren erreziboa aurkitu zuen senarraren jaka bateko poltsikoan. Geltokira hurbildu zen, kontsignan senarraren desleialtasunaren frogaren bat topatuko zuela pentsatuz, baina Patrick Mahonek odolez betetako emakumezko jantziak eta labana handi bat gordetzen zituen bertan.

Scotland Yardeko kideek maiatzaren 2an atxilotu zuten Mahon, eta galdeketa Sussexeiko bungalowera eraman zituen. Emily Kayeren gorpua 37 zatitan laurdenkatuta topatu zuten. Zati batzuk kutxa batean gor-

deta zeuden, beste batzuk gailera kaxetan banatuta, eta zati batzuk beheko suan erretzen saiatu zen. Biktimaren burua ez zuten sekula aurkitu.

Patrick Mahonek istripu bat izan zela argudiatu zuen, alferrik. Poliziak egun batzuk lehenago labana eta zerra handi bat erosi zituela eta, beraz, maitalea hiltzea aurrez pentsatuta zeukala frogatu ahal izan zuen, saltzailearen lekukotasuna medio. Epaileak “sekula ikusi dudana hilketa anker eta higuingarriena” izan zela adierazi zuen, eta hiltzaileari heriotza zigorra ezarri zion. Urte bereko irailaren 2an exekutatu zuten.

Emily Kayeren gorpua zatiak bildu behar izan zituzten poliziek ere haien karrerako krimen higuingarriena zela adierazi zuten. Ondorioz, Scotland Yardeko arduradunei eskaera bat luzatu zieten: handik aurrera eskularruak erabili nahi zituzten hilketen gertalekuak prozesatzeko. Hasierako helburua hura ez bazen ere, eskaera hari esker, gomazko eskularruak ezinbesteko bihurtuko ziren aztarnak eta frogak ez kutsatzeko.

Hilketa izugarri hark izan zuen beste eraginik. 30 urte geroago, *Rear window* (Atzeko leihoa) suspense film ezaguna estreinatu zen. Alfred Hitchcock zuzendariak berak onartu zuen Emily Kayeren hilketa inspirazio iturri izan zuela maisulana filmatzeko. ■



Arrastoak

Magenta, gudu-zelaian isuritako odolaren kolorea

MUSEO DEL RISORGIMENTO



1859KO EKAINAREN 4AN Magentako gudua (irudian) egin zuten frantziarrek eta italiarrek austriarren aurka, Lombardia mendean gogatu nahian. Bertan isuritako odola gogoan, italiarrak fuk-sina koloreari magenta esaten hasi ziren, eta izen berria berehala zabaldu zen. Baina Magentakoa ez zen izan garaiko gudu odoltsuenetakoa. Hoge-

egun geroago, Solferinokoa askoz latzagoa izan zen, Gurutze Gorria sortzea bultzatzeraino. Eta more ukitu handiagoa zuen beste gorri bati solferino esan zioten handik aurrera. Baina magenta kuatrikoman inprimatzeko oinarritzko koloreetako bat da, eta, hala, gudua apalagoa izan arren, solferino baino ospetsuago bihurtu da. ■



BAIETZ 1.000 EROSLE LORTU!

DVD BERRIA!

🌐 Ene kantak ekimena DVDa prestatzen ari da, Euskalerria Irratia diruz laguntzeko xedearekin.

🌐 Haurrentzako 20 kanta berri eta beste horrenbeste bideoklip grabatu ditugu jada, hainbat lagunekin:

Fermin **Muguruza**, Ruper **Ordorika**, Imanol Ubeda **Bide Ertzean**, Mikel **Urdangarin**, Fran eta Zuriñe **Hesian**, El **Drogas**, **Kutxi** Romero, Manolo **Garcia**...

🌐 DVDa dendetan salgai jarri ahal izateko, laguntza behar dugu. Fisikoki jaso aurretik DVDa erosiko diguten 1.000 lagun behar ditugu.

DVD-A EROSTEKO: VERKAMI.COM
vkm.is/emanbideaeuskalerriairratia



euskalerriairratia
.com

ELISENDA CASAÑAS

«Eskoizian erreferenduma egitea posible bada, zergatik ez da Katalunian posible izango?»

Elisenda Casañas Zuzenbidean lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Bere tesiak Eskoizia-Britainia Handia eta Katalunia-Espainia bikoteak alderatu zituen. Katalandarra izateak, baina ama eskoziarra edukitzeak modu berezian biribiltzen du bere curriculum. Edinburgoko Unibertsitateko bulegoan hartu gaitu.

| JON ALONSO |

DOKTORETZA Florentzian egin zuen, Europako Unibertsitate Institutuan. Bere tesia (*Judicial Federalism from a comparative perspective: Spain, the United States and the United Kingdom*) zuzenbide konparatuan oinarritzen zen: zehatz esateko, Eskoizia-Britainia Handia eta Katalunia-Espainia bikoteak alderatzen zituen, botere judizialaren ikuspegitik, Amerikako Estatu Batuetako errealitateari ere so eginez. Gaia hauxe zen: botere judiziala eta nazio antzeko estatuak.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eskolak ematen denbora batez egon eta gero, egun Edinburgoko Unibertsitateko Law School-eko irakaslea da. Euskal Herrian ezaguna dugu, Juan Jose Ibarretxe eta beste hainbat aditurekin batera erabakitzeak eskubidearen aldeko mahai-inguruan parte hartu baitzuen joan den martxoan.

Eskoizia, Katalunia... Ba al da bi prozesu hauen sorrera justifikatzen duen ezaugarri historikoren bat?

Hasieratik argi utzi behar da bi prozesu guztiz ezberdinak direla. Hemen SNPk, minoritarioa izatetik datorren alderdi baten ideiak, *devolution* prozesuan oinarritutakoak —*devolution* 1997an Eskoziako Parlamentua sortzeko izenpetu zen legea da, eta bere espiritua progresiboki soberania-kuota handiagoak

lortzearen aldekoa da— eta bere liderraren arrakastak, hau da Salmondren arrakastak bultzatu du prozesua, han gizarte zibilaren bultzada izan da erabakigarria. Gero, nik uste dut hemengoaren eragina, han, begi-bistakoa dela, bat-batean erreferendumaren posibilitatea erreal bihurtzen delako, katalandarrak hona begira jarri eta beren buruari esan diotelako: Eskoizian posible bada, zer dela-eta ez da Katalunian posible izango? Lehenetik ere bazen Quebecoko erreferentzia, baina hura askoz urrutiago ikusten zen; aldiz, Eskoziaren kasuak desegin ditu errezelo asko: ez da munduaren amaiera, ez da ezer gertatzen, prozesua guztiz modu zibilizatuan gauzatu daiteke, hemen gertatu den bezala... Dena eremu berean gertatzen ari delako, Europan alegia.

Eskoziaren kasua bitxia iruditzen zaigu kanpotik beha gauden askori: erreferenduma egingo zela erabaki zenean, ezetza zen nagusi alde handiz, nahiz eta gero, dirudienez, alde txikiagotzen ari den. Harrigarria da, neurri batean: nola hartzen du SNPk erabaki hori, itxura batean gutxienez, politikoki oso gaizki ateratzen ahal zaion apustua denean?

SNP hasieratik izan da alderdi independentista. Hasieran alderdi

minoritarioa zen; 2007ko hauteskundeetan gehiengoa lortu zuen, ez gehiengo absolutua, ordea. Hala ere, SNPk bere estrategia independentistarekin segitu zuen. Gertatzen dena da Salmondren ideia zela, hasiera batean, bi galderako erreferenduma egitea, Katalunian planteatu den antzera: galdera bat *devolution* delakoari buruz izango zen, eta bestea, independentziari buruzkoa. Hasierako planteamendu horrekin inkestak ez zitzaizkion hain gaizki ateratzen SNPri, ikusten zelako, kopuruz, hiru talde antzeko ateratzen zirela: egoera bere hartan jarraitzea nahi zutenen taldea, autonomia handiagoa nahi zutenen taldea, eta independentzia nahi zutenena. Gauzak horrela, bi galdera horiek eginez gero argi geratzen zen *devolution*-eko jarrerak irabaziko zuela, independentisten bozkak ere batuko zituelako, behar izatera. Izan ere, hemengo kultura konstituzionala urratsak hurrenez hurren ematearen aldekoa da, oso, haustura gogorren aldekoa baino. Beraz, gauza independentzia bai edo ez ipiniz gero, inkestak ez ziren hain onak Salmondentzat, baina egoera bere osotasunean begirata, giroa ez zen hain eskasa. Eta, hara non, 2011ko hauteskundeetan SNPk gehiengo absolutua lortu zuen.



Erresuma Batuko Gobernuaren inposizioa: konforme, erabaki zuten, emango dizuegu erreferenduma egiteko eskumena, baina trukean eskatzen duguna da galdera bakarra izatea, eta erantzuna, bai ala ez.

Beraz, erreferenduma egiteko eskumena ez zegoen Eskoziako Parlamentuari edo Gobernuari.

Hori oso argi ez zegoen auzia zen. Hemen, printzipioz, edozein hiritarrak eskubidea dauka auzitegiara jotzeko edozein lege inkonstituzionala dela iruditzen zaionean. Hori gerta ez zedin, Erresuma Batuko Gobernuak Eskoziari erreferenduma egiteko eskumena berariaz eman zion, inork ez zezan auzitegiara jo.

Zer dio Britainia Handiko konstituzioak estatua osatzen duten nazioek daukaten soberania-graduari buruz?

Britainia Handiak ez dauka konstituzio idatzi bat. Hemen marko konstituzionala aski malgua da, eta agiri-multzo batek —zenbait lege, jurisprudentziak, zenbait agirik, printzipiok, konbentziok, praktikak— eratzen du marko hori. Alde horretatik, hemen ere zalantzak izan ziren, eztabaida eta ika-mika handiak, erreferendumari dagokionez. Hau da, auzia zen ea Eskoziako Parlamentuak edo Gobernuak eskumena zeukan erreferenduma egiteko, edo ez. Izan ere, 1998ko *Scotland Act* delakoak horri buruz dioena batera zein bestera interpreta zitekeen. Beste batzuek 1707ko Batasunaren Ituna hartzen zuten aintzat, erreferendumaren eskumenari dagokiona konpontzeko —1707ko Batasunaren Ituna Eskoziaren eta Ingalaterraren batasuna ezartzen duena da—. Hortaz, hor planteatu zen eztabaida: ea nori zegokion erreferenduma antolatze-ko eskumena, eta zertan oinarrituta

iristen zen ondorio horretara. Dena den, hemen ez dago halako eztabaidak auzitegiaren erabakitzeko kulturarik. Esaterako, sekula ez da Eskoziako Parlamentuaren eta Britainia Handiko Parlamentuaren edo gobernuen arteko eskumen-gatazka bat auzitegiara eramán. Baina azkenean nahiago izan zuten, batzuek eta besteek, adostasun batera iritsi, gaiari buruzko jurisprudentziarik ez eta, hobe zelakoan, Auzitegi Gorenera jo baino. Espainian halakorik ezinezkoa da.

Legearen aldetik, nola ikusten dituzu Europar Batasunarekiko harremanak, zenbait herrialdek balia zezakeen beto-eskubidea...

Hau ere oso gai eztabaidatua izan zen, eta honetan Salmondek huts txiki bat egin zuen, demostratu zelako ez zeukala Eskoziak Europako Batasunaren barruan segituko zuela zioen txosten juridikorik... Orain, adituen artean, gehiengoaren iritzia da, Eskozian bederen, Europar Batasunak ez dizkiela eskubideak estatu kideei bakarrik ematen, Europako hiritarrei ere eskubideak ematen dizkiela, eta independentzia prozesu batek, eskoziarrak europar direnez, ez dizkiela europar hiritar moduan dauzkaten eskubideak ukatu behar. Hortaz, uste dute negoziazio politiko bat izan daitekeela, eta negoziatio horren bidez mekanismoak sortu Europaren barruan segitze-ko. Zeren, gauza bere osotasunean ikusita, ez litzateke Eskoziak bakarrik arazo bat edukiko lukeena. Erresuma Batua ere aldatuko litzateke, lurraldez, populazioz... Beraz, Erresuma Batua ere berregokitu beharko litzateke Europar Batasunaren barruan, ez zelako izango lehengoa... Beraz, bi estatu berri izango zirenez, biek berregokitu beharko lukete euren estatusa negoziatio baten bidez. Aditu askok, esaterako hemen irakaslea den eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko kidea izan den ospe handiko Sir David Edwardek, argi esan du auzi politiko bat izango zela, ez duela zentzurik dagoeneko Europa den herrialde batek —Eskoziak— kanpora joan behar izateak.

A ze nolako arrakasta, ezta?

Bai, are eta gehiago kontuan hartuz gero hemengo hauteskunde-sistema aski bihurria dela —ordezkari batzuk barrutika aukeratzen dira, eta beste batzuk, aldiz, sufragio zuzenaren bidez—, inork gehiago absolutua ez lortzeko pentsatuta, alderdien arteko ituna egitera behartzeko asmatua. Beraz, alde horretatik Salmonden arrakasta historikoa izan zen, inork ez zuelako uste gehiago absolutu bat litekeena zenik, Eskozian, sistema horrekin. Orduan Salmondere bere burua oso indartsu ikusi zuen, eta erabaki zuen nekez edukiko zuela hau bezalako beste aukera bat, eta aurrera egitea erabaki zuen. Ez da ahaztu behar aurkeztu zuen programaren barruan zegoela erreferenduma egitea.

Baina azkenean, zenbat galdera egingo dira?

Azkenean galdera bakarra izango da. Horixe izan zen, hain zuzen,

Eta betoa? Badakizu, esaterako Espainian, horri buruz zer esaten den...

Bai, egia da beto-eskubide hori izan badela. Baina nire iritzia da Espainiak eskuak lotuta edukiko lituzkeela, are gehiago dagoen egoeran egonda, britainiarren artean lortutako eta gainerako estatuek onartutako akordio politiko bat atzera botatzeko.

Beste gai batera pasatuz: Eskozia zoragarria da, jendea ikaragarri amultsua eta atseгина, baina, nola eragiten die honek guztiak sentimenduen arloan? Batek pentsatzen du nolabaiteko haustura-tentsioa topatu behar duela, baina normalitatea erabatekoa da. Ez dirudi une historiko bat bizitzen ari direnik.

Eskozian gauzak, orokorrean hartuta, ez daude hain gaizki. Beste alde batetik, Britainia Handian inork ez du sekula ukatu Eskozia nazio bat denik. Cameronek ere, hasieratik, eta nahi bada kalkulu politiko bat eginez, ez du inoiz ukatu erreferenduma egiteko eskubidea. Alde horretatik, ez dago krispaziorako lekurik. Baina unionisten kanpaina, hasiera-hasieratik, oso negatiboa izan da. Jendeak “Beldurra proiektua” esaten dio. Ez dute kanpaina positibo bat egin, nazionalistek planteatu dituzten elementuak ukatzera mugatu dira. Salmondek diola ekonomiak hobera egingo duela? Ba, haiek ezetz, baina elementu positiborik planteatu gabe. Eta denean horrela. Jarrera hori ekartzen ari da joera-aldaketa inkestetan, hain zuzen ere. Gainera, independentziaren aukerak ziurgabetasuna sortzen du, baina puntu batetaraino, jendeak ez duelako hainbeste zalantza Eskozia independente baten bidegarritasunaz.

Gai ekonomikoak: Ipar itsasoko petrolio, libratik ateratzea, zorra...

Hor ere Ingalaterrako Gobernua ziurgabetasunaren baza jokatzen ari da. Ez dute esaten zer nolako hitzarmenetara iristeko prest dauden. Beren jarrera da, konforme, botoa eman ezazue, eta ondoren, alde egitea erabakitzen baduzue, orduan ikusiko dugu zer nolako

hitzarmenetara iristera prest gauden, baturik segitzeko erabakia hartu dutenen interesen defentsan.

“SNPren kanpaina gizarte ongizateari begira dago guztiz. Eztabaidatzen dena horixe da, finean, independentziarekin bizi-kalitatea irabaziko den edo ez. Hori da funtsa”

Gure ikuspegitik oso harrigarria da, eskoziarren aldetik, zenbait gauzatan egiten duten planteamendua: libratik ez ateratzea, erregina eta erregetxea onartzea...

Tira, zenbaiten iritziz Salmonden independentzia proiektua aski *light* edo litzateke. Ez du planteatzen haustura erabatekorik. Irudi luke bi aldeek nahiko lituzketela bildu bi aukeren erdian dauden boto-emaeak. Erregetzari dagokionez, ez da ahaztu behar erregetxe britainiarra Eskoziako erregetxe ere badela, hortaz beretzat hartzen dute. Baina planteamendua lotuta dago lehen aipatu dugun progresibotasun horrekin. Horregatik beragatik, alderdi unionistak hasi dira planteamendu alternatiboak asmatzen, konturatuta bestela ez daukarela zer eginik. Eskoziari autonomia gehiago ematearen aldeko planteamendua.

“Eskozian gehiengoaren iritzia da Europar Batasunak Europako hiritarrei ere eskubideak ematen dizkiela, eta independentzia prozesu batek ez dizkiela europar hiritar moduan dauzkaten eskubideak ukatu behar”

menduak, noski, ezetzak irabazten duen kasurako.

Eskoziak zergak biltzeko eskumena dauka?

2012. urtera arte eskumen gutxi zeukan arlo horretan, eta erabili gabe zituen eskumen gutxi horiek. Aurtengo *Scotland Act* delakoaren azken berrikuntzak, ordea, hainbat eskumen ematen dizkie Eskoziako Parlamentuari eta Gobernuari zerga kontuan, baina eskumen horiek oraindik ez daude indarrean. Hori da alderdi unionistak aztertzen ari diren gaietako bat.

Horretaz aparte, uste duzu konparagarriak direla, esaterako, Kataluniaren autonomia-maila eta Eskoziakoa?

Konparagarriak iruditzen zaizkit eskumenei dagokienez. Baina diferentzia handi bat dago: naziotasunaren aitortza.

Badago jarrearen polarizaziorik eskualdearen, erlijioaren edo hizkuntzaren arabera?

Nik ezetz esango nuke. Salmonden eta SNPren kanpaina gizarte ongizateari begira dago guztiz, eta hor dago egiazko gatazka: gizarte zerbitzu gehiago, zerbitzu publiko gehiago, aberastasunaren banaketa justuagoa, eta abar, sozialdemokrazia ideologiaren ikuspuntutik. Eztabaidatzen dena horixe da, finean, independentziarekin bizi-kalitatea irabaziko den edo ez. Hori da funtsa. Gero, polarizazioa aipatu duzunez, bada datu aski bitxi bat: esaten dute generoaren arabera diferentzia dagoela, hau da, gizonezkoak independentziaren aldekoagoak direla emakumeak baino.

Eta hori nola interpretatzen da?

Interpretazio batzuen arabera, aski interpretazio sexista bada ere, emakumezkoek jarrera kontserbatzaileagoa egozten zaie. Zeren egoera honek hutserako egindako jauzi-sentipenetik ere badauka: alegia, ez gaude hain gaizki, hobeki egon gitezke agian, baina, zer gertatuko da, benetan, jauzia egiten badugu? Beste batzuek egiten duten interpretazioa da emakumea dela gizarte-laguntzaz (gaixo eta

zaharren zaintza, eta beste) gehien arduratzen dena, eta hortik dator-kiela jarrera zuhurragoa izatea, Sal-mondek estatu askoz sozialago baten promesa egiten baitu, baino Erresuma Batuko Gobernuak esaten duelako ez duela dirurik izango bere promesak betetzeko. Dena den, inkesta zehatzago batzuek erakusten dute gai berdintsuek kezkatzen dituztela emakumeak eta gizonak, eta hortaz, diferentzia hori izateko arrazoia zein den, ez dago batere argi. Edonola ere, emakumeen botoa funtsezkoa gertatuko da.

Zu, katalandarra zaren aldetik, eta Eskoziakoa ezagututa, baikorra zara?

Biziki kezkatzen nau Kataluniako egoerak, ikusten dudalako gauzak okertzen ari direla eta azkenean, geratzen diren aukerak oso erradikalak direla, eta uste dudalako horrek ez diola inori mesederik egingo. Mar-txa honetan, ematen du hauteskunde plebisitarioetara joan beharko dela, eta independentziaren aldeko hau-tuak irabaziz gero, alde bakarreko independentzia aldarrikapenera; eta

“Eskozia eta Katalunia konparagarriak iruditzen zaizkit eskumenei dagokienez. Baina diferentzia handi bat dago: naziotasunaren aitortza”

honek eszenatoki problematiko bate-ra eramango gintuzke.

Negoiazio baten eta konponketa baten aukera baztertzen duzu?

Nik uste dut gauzak iritsi diren pun-tura iritsita, oso aukera gutxi gera-tzen dela jendeari esateko, begira, konponketa ekonomiko batera iritsi gara, eta beraz, ez duzue bozkatu beharko. Hau ere oso problemati-koa iruditzen zait. Ordea, negozia-zioaren posibilitatea ez da inoiz baz-tertu behar. Beharbada orain, negoziazio baten bidez hitzarmenen batera iritsiko balitz, horixe aurkez-tu beharko litzaioke herriari, horri


buruzko botoa eman eta prozesua amaitzeko.

Ez ditugu tankeak ikusiko Grazia pasealekuan, ezta?

Ezetz espero dezagun. Horixe da nik esan nahi dudana: egoera ez da erraza inorentzat. Masek nekez egingo du atzera, gobernu zentralak bere jarreraren irauten badu ere, ANC bezalako baseko erakundeak oso indartsu daudelako, eta zalantzak eduki dituen bakoitzean Esquerrak nabarmenki gora egin duelako. Gai-nera, erreferendumaren aldeko jarrera herritarren artean oso zabal-duta dago; azken hauteskundeetako emaitzek erreferenduma egitearen aldeko agindu bat suposatu zuten. Baina, bere aldetik, Madrilgo gober-nuak ere ezin ditu irteera errepresi-bo hutsak baliatu. Hain justu, lehen Quebecoko eta orain Eskoziako prozesuek oso agerian uzten dute Madrilgo jarreraren intolerantzia. Eta bitartean jendea oso haserre dago, sumindu-ta, nazio bezala merezi duen aitortenaren zain, besteak beste. ■



Kalean da ekaineko



aizu!

- Azterna zaharrak gaztetxe berrian
- Peñak, Sanferminetako gatza eta piperra
- Baratze Parkeen Sarea Gipuzkoan
- Estitxu Pinatxo arin-arin
- Botika baten historia

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org

Gero eta naturaltasun handiagoz

Gero eta gehiago dira gidabaimena euskaraz ateratzeko zerbitzua eskaintzen duten autoeskolak. Lurraldetik lurraldera datuak asko aldatzen badira ere, ez da ohiz kanpoko euskarazko eskaintza. Azterketa teorikoa euskaraz egin daiteke; azterketa praktikoan, berriz, gaztelaniaz entzun behar dira aztertzailearen jarraibideak.

| SAIOA LABAKA |



‘GIDABAIMENA EUSKARAZ’ KANPAINAK UTZIA

Gipuzkoako Buruntzaldean, iaz, 135 herritarrek egin zuten azterketa teorikoa euskaraz. Argazkia, azterketa euskaraz egiteko kanpainan ateratakoa da; autoeskoletako arduradunak euren kotxearekin.

2009. URTEAN argitaratu zen gida-baimena euskaraz ateratzeko ikas-materiala, Valentziako AEOL argitaletxearen eskutik. Ordutik daukate EAEko autoeskola guztiek euskarazko materiala eskuragarri. Horren guztiaren iturburua Bizkai-ko Igorreko Arratia autoeskolan dago. Unai Zulueta bertako burua da euskarazko materialen lehen sortzailea eta bultzatzailea. Orain hogeit bat urte hasi zen bere kabuz euskarazko materialak prestatzen,

eta bere lanaren jakitun, Gipuzko-ako Debagoieneko Mankomunitatea hasi zen bide berean lanean. Euren arteko elkarlanari esker lortu zen euskarazko materiala plazaratzea.

Harrezkero, trafikoa arautzeko neurriak egokitzen joan dira eta, hain justu ere, oraintsu aldatu dute Zirkulazioaren Arautegi Orokorren legea. Gaztelaniazko materialak —eskuliburua, multimedia programak, azterketak...— maiztasunez

eguneratzen dituzte, baina ez da gauza bera gertatzen euskarazkoekin. AEOL da, egun ere, euskarazko edukiak lantzen dituen argitaletxe bakarra; euskarazko edukien eskaera-merkatua txikia da eurentzat, eta ikuspegi hori dela eta, materialak bere horretan daude, nolabait esateko. Gai horren harira, Maider Axpe Debagoieneko Mankomunitateko teknikariarekin hitz egin dugu: “Lege berria onartu da, eta iritsi da momentua aurrera egi-

teko; azken denboraldian geldi baitago kontua. Materiala eguneratu egin behar da eta erronka gisa har daiteke lege aldaketa; proiektua sendotzera eta hobetzera bultzatu behar gaitu”.

Azterketa praktikoari dagokionez, egun, ez dago euskaraz egiteko aukerarik. Nahiz eta aztertzaileak euskaraz jakin, azterketak gaztelaniaz egiten dira: “Trafiko Buruzagitzak ez du azterketa euskaraz egiteko aukerarik ematen. Azterketa euskaraz egin ahal izatea eskubidea da eta Administrazioak hori betetzeko derrigortasuna dauka, baina ez dago borondateirik”, adierazi digu Unai Zulueta Igorreko Arratia autoeskolako buruak. Horrez gain, aztertzaileek Trafiko Zuzendaritzarekin dituzten barne/lan arazoak ere ez dira lagungarri egoera hobetzeko. Jakin dugunez, badira aztertzaile euskaldunak Gipuzkoan eta Bizkaian. Aztertzaileen hizkuntza-gaitasuna ez da arazoaren muina, azterketak bideratzeko jakin beharreko euskara maila kontuan hartuta.

Gipuzkoan, iaz, 727 lagunek egin zuten teorikoa euskaraz

Lurralde eta eskualdeetan gidabaimena euskaraz ateratzeko zein aukera dauden ezagutu nahi izan dugu. Gipuzkoako datu orokorren nondik norakoak azaldu dizkigu Aitziber Etxebeste Gipuzkoako Autoeskolaren Elkarte (GAE) euskaraz batzordeko kideak eta Oiarzun Autoeskolako buruak. Gipuzkoan 24 bat autoeskola daude euskarazko zerbitzua eskaintzen dutenak; horien artean badira autoeskola bat baino gehiago dauzkatenak. Bestalde, azterketa euskaraz egiten duten ikasle kopuruari dagokionez, 2009an, 30 lagunek egin zuten azterketa teorikoa euskaraz eta 2012. urtean, 727 pertsonak. 2013ko kopuru zehatzik ez dauka-

gu eskuartean, baina jakin duguna da egindako azterketa teorikoen %15 euskaraz egin zela. Etxebeste- ren ustez, datuak 2012koen antze- koak izango dira.

“Gure autoeskolan %75ak ateratzen du azterketa teorikoa euskaraz. Ez gara, ordea, egoera orokorraren isla. Bizkaian gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen portzentajea oso txikia da oraindik. %5a izango da?”

Unai Zulueta,
Arratia autoeskolako burua

Arestian esan bezala, Debagoienan (Leintz Gatzaga, Elgeta, Antzuola, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Arrasate) aspaldi hasi ziren gidabaimena euskaraz egiteko bitartekoak jartzen. Egun, bailarako autoeskola guztietan dago azterketa teorikoa euskaraz prestatzeko aukera; hamabi autoeskola daude bertan. Maider Axpe Debagoieneko Mankomunitateko kideak

Oñatin 2009an %10ak ateratu zuten gidabaimena euskaraz, 2013an %64ak

jakinarazi digunez, euskara modu naturalean sartu da bertako autoeskoletan; ikasketa guztiak euskaraz egiten dituzten gazteek, autoeskoletako prestakuntza ere euskaraz egiten dute, oro har. Egun, Arrasateko eta Oñatiko udalek gidabaimeneko

azterketa euskaraz egitera animatzeko kanpaina jarri dute abian eta azterketa euskaraz egitea saritu egingo dute. Oñatin, esaterako, azterketa teorikoa euskaraz egiten dutenen artean, 350 euroko saria zozkatuko dute urte amaieran. Herrian gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen kopuruak gora egin du urtez urte; 2009an %10ak ateratu zuten gidabaimena euskaraz, eta 2013an %64ak.

Gipuzkoako beste eskualde bateko egoera zein den ezagutzeko aukera ere izan dugu. Buruntzaldean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) hamaika autoeskola daude eta guztiek eskaintzen dute euskarazko zerbitzua. Eskualdean, 2011n hasi ziren gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoarekin buru-belarri eta urte horretan 34 lagunek ateratu zuten azterketa teorikoa euskaraz. 2012an, 112 lagunek eta 2013an 135ek. Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako Udaleko Euskarazko Zerbitzuko teknikariak jakinarazi digunez, erantzun ona izan du egitasmoak datuen argitan. Herri mailan egindako lanketa dela kontuan hartuta, datu onak direla gaineratu digu. Aurten ere, martxan jarri dute *Gidabaimena euskaraz* kanpaina. Eskualde honetan ere, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz ateratzeko saritu egingo dute; herritarrek animatu nahi dituzte esparru horretan ere, euskaraz erabiltzera. 400 euroko zozketa batean parte hartzeko aukera izango dute azterketa euskaraz egiten dutenak.

Bizkaian, 50 autoeskolak euskarazko zerbitzua eskaintzen dute

Bizkaiko egoeraren nondik norakoak ezagutu nahian, Alkarbide Euskarazko Zerbitzuen Bilgunera jo dugu. 2010ean hasi ziren *Gidabaimena Euskaraz* kanpaina ekimenarekin

Babeslea: IVAP

 HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskadi.net	Enplegu Publikoa Lan-eskaintzen harpidetza Lan-poltsak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Toki administrazioetako idazkaritza, kontabilitateak eta diruzaintza Hautaketak	Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldundiak Berarietako hizkuntza prestakuntza EUTU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	Euskara Euskarazko ikasketak Hizkuntza eskakizunak Erabileraren Planaren prestakuntza Argitalpenak (euskaraz) IZO-Itzulitzaile Zerbitzu Ofiziala
---	--	--	---

Alberto Egia

Amurrio Autoeskola

«Argi geneukan euskaraz ere aritu behar genuela, kompetentziatik bereizteko era ederra iruditu zitzaigun»

Zenbat denbora daramazue autoeskolan lanean?

2001etik hona, guztira 12 urte.

Noiz hasi zineten gidabaimena euskaraz ateratzeko zerbitzua eskaintzen?

Hasieratik argi geneukan gure zerbitzuak erdaraz zein euskaraz eskaini behar genituela, kompetentziatik bereizteko era ederra iruditu zitzaigun.

Nolakoa izan da materialak euskaraz izatearen prozesua?

2001ean ez zegoen euskarazko eskulibururik. Orduan, gu geu hasi ginen artisau lana egiten, testak itzultzen genituen eta erdarazko liburua erabiltzen genuen. Urtebete geroago, Deustuko Artez argitaletxearekin elkarlanean hasi ginen. Zorionez orain dela urte batzuetatik Valentziako AEOL enpresak material guztiak prestatzen ditu: eskuliburua, multimedia programak eta abar.

Eduki teorikoak eta eskola praktikak euskaraz eskaintzen dituzue?



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Bai, momentu honetan bi irakasle gara autoeskolan eta biak euskaldunak, beraz, gure ikasleek badute aukera teorikoa eta praktikoa euskaraz egiteko.

Zenbat dira azterketa euskaraz egitea erabakitzen duten ikasleak?

Zentzu horretan, egia esateko, gure eskualdean ikasleek oraindik “balazta jarrita” daukate gidabaimena euskaraz lortzeko. Gehienek gaztelania aukeratzen dute.

Zein da joera?

Azken urtetan joera gelditu egin da eta ez du hobera egin. Euskara aukeratzen dutenen kopuruak txikia izaten jarraitzen du.

Azterketa praktikoa gaztelaniaz egin behar dute ikasleek.

Badakit aztertzailearen bat euskara ikasten aritu zela denboraldi batean, baina momentu honetan Araban behintzat ez dago aztertzaile euskaldunik. Guk klasea euskaraz ematen dugu, nahiz eta gero azterketa erdaraz egin.

Badakizu zenbat autoeskoklek eskaintzen duten azterketa euskaraz ateratzeko aukera Araban?

Hiriburuan, Gasteizen adibidez, euskaraz eskaintzen duen eskola bakarra dago. Probintzia osoan hiru garelakoan nago.

eta autoeskolak euskarazko materialez hornitzeko lanketari ekin zioten. Arrigorriaga, Elorrio, Erandio, Getxo, Mungia, Ondarroa, Txorierri eta Uribe Kostako herrialdeek hartu zuten parte egitasmoan. 27 autoeskola batu ziren proiektura eta 25 lagunek egin zuten azterketa teorikoa euskaraz. Urtebete geroago, 60 lagunek egin zuten euskaraz azterketa eta 2012an 100 lagunek. Iaz, Erandio, Getxo, Uribe Kosta, Leioa eta Basauri izan ziren egitasmoaren sustatzaile nagusiak eta, gutxi gora-behera, euskararen aldeko hautua egin zutenak 150 direla jakinarazi digute. 50 autoeskola inguruk eskaintzen dute egun gidabaimena

euskaraz ateratzeko zerbitzua Bizkaian. Bizkaiko Autoeskolen Federazioak jakinarazi digunez, guztira, 81 dira euren elkartean izena emandako autoeskolak.

Unai Zuluetaekin hitz egin dugu egoeraz: “Gure autoeskolan %75ak ateratzen du azterketa teorikoa euskaraz. Orain 20 urte hasi ginen euskarazko materialekin, eta harrezkeror jende gehienak euskara aukeratzen du. Gu ez gara, ordea, egoera orokorraren isla. Bizkaian gidabaimena euskaraz ateratzen dutenen portzentajea oso txikia da oraindik. %5a izango da? Gero eta gehiago dira euskarazko zerbitzua eskaintzen duten autoeskolak, baina, orain, esaterako, Barakaldoko

ikasle bat daukagu gurean, euskaldunberria bera. Gugana etortzen da prestaketa euskaraz jasotzera; 30 bat kilometro daude Barakaldotik Igorrera”.

Araba aldean, Aiarako kuadrillan (Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo) dago gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera; probintziako ipar-mendebaldean. Denboran atzera, eskualde honetan egin izan dira gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpainak. Azterketa euskaraz prestatzeko eskaintza oso murrizta da probintzian; hantzen hementika galdetzen ibili ostean, hiruzpalau izango dira. ■



Carlos Urquijo, beste behin

“TOLOSALDEKO ATARIA”K jaso du albiste. Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak bigarren salaketa jarri dio Tolosako Udalari. Kultur jarduerak diruz laguntzeko oinarrietan euskara bultzatzeko irizpideak jarri ditu eta horretara dator salaketa. Udalak adierazi du legeak ematen dizkion aukera guztiak baliatzen segiko duela.

Lehen errekurtsioa 2013ko urte hasieran jarri zion Urquijok Udalari.

Ziburuko auzapezak ez dio ez lurrik ez eraikinik eskura jarri nahi ikastolari

BI URTEKO HITZARMENA zuten Ziburuko ikastolak eta Ziburuko Herriko Etxeak. *Kazeta.infok* emandako albistearen arabera, maiatzaren 30ean, Guy Poulou auzapezak adierazi zien ez duela akordioa berrikutuko. Horren ondorioa: ikastola lurrik eta eraikinik gabe geratuko da.

Duela bi urte sortu zen Ziburuko ikastola, ama eskolako haurrak biltzeko. Marinelako eskola publi-

koan obrak egin behar zituzten eta eskola horretako ikasleak aisialdi zentzura eramane zituzten. Marinelan bi eraikin prefabrikatu jartzea adostu zuen Ziburuko ikastolak Herriko Etxearekin. Obrak bukatu dira ordea, eta Marinelara itzuliko dira eskola publikoko haurrak. Akordioa ere amaitu da, eta berri- tzekeko intentziorik ez.

Maiatzaren 30eko bileran, auzapezak prefabrikatuak Seaskaren Piarres Larzabal kolegioan ezartzea proposatu zien, baina Ziburuko ikastolaren ustez, kolegioa “txiki- kiegia da” eta ez ditu haurrak “oilategian” eduki nahi. Ikastolak bi proposamen luzatu dizkio. Bata, eremu publikoko aparkaleku bat uztea prefabrikatuak jasotzeko, eta bestea, auzapezak agindu zuen haur txikientzako poloa horretarako erabiltzea. Lehenengoari ezetz, eta bigarrenari, berak ez duela inoiz agindu haurrentzako polorik.

Gauzak aldatzen ez badira, datorren eskola sartzean ez dute eraikinik eta lurrik izango. Egoera salatzeko, ekainaren 9an elkarretaratzea egin zuten eta 200 lagun bildu ziren posta aitzinean. Lehenengo urratsak ez badu ondorio- rik, bestelako bideak urratu behar- ko dituztela adierazi digu Laida Mujika Ziburuko ikastolako lehen- dakariak. Litekeena da gurasoek manifestazioa antolatzea edo erai- kinen bat okupatzea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Borboi erregearen aberastasuna eta bortxaezintasuna

BETI IZAN DA SEKRETUA abdikatu berri duen Juan Carlos Borboikoaren aberastasuna. Errege Etxearen eta gobernuen opakotasuna sistematikoa izan da. Orain arte, Errege Etxearentzat aurrekontu orokorretan erreserbatutako diru kopurua baino ez dugu jakin, 8 milioi euro baino gehiago. Duela hilabete batzuk Erregearen urteko soldata argitaratu zen, 280.000 euro, baita oinordeko Feliperena ere, 140.000 euro. Borboikoaren ondare pertsonalaz baina, ez da ofizialki ezer esan. Atzerrian zen- bait datu argitaratu izan direnean, ohiko erantzun labur bera jaso izan dute: “Ez dira zuzenak”. Baina sekula ez dute zifra ofizial zuzenik eman.

Bruselako Unibertsitateko Herman Matthijs-ek, Europako errege etxeen aurrekontu eta ondareetan adituak, 2012an Espainiako Errege Etxearekin alderatu nahi izan zituen eskura zituen datuak, alferrik baina. Ikerlariak zioen Borboikoaren ondasuna 1.640 milioi eurokoa zela. Datu horrek bat egiten zuen *Forbes* eta *New York Times*ek argitaratutakoekin. Beste iturri batzuek diote 2.000 milioi eurokoa dela

bere aberastasuna. Antza, 540 milioi euro irabazi zituen errenta aldakorrean eta artelanetan egin- dako inbertsioetan; beste 1.000 milioi euro hainbat ondasuni dagokie. Denek galdera bera egi- ten dute: nola egin ahal izan du halako dirutzarra, erregetza kasik zerotik hasi bazuen? Susmoak dira, ea zer harreman izan duen mundu arabiarreko enprekin eta aberatsekin.

Judizialki blindatuta egon denez –egoera horretan jarraitu nahi du abdikatu eta gero ere–, edozer ikerketari iskin egin dio. Logikoa litzateke, edozein herritar bezala, bera eta bere aberastasuna ikertzea. Edonola, halako diru mordoarekin erretiratu ondoren, eskandalua litzateke Gobernuak monarkarentzako aurrekontua mantentzea, zer eta gure zergen bidez. Ask da “mendekoen” kon- tura aberasteaz. Gainera, ez genuen inoiz aukeratu. Beste erre- publika baten garaia da, gardena, justiziaren aurrean inor blindatu- ko ez duena. Errefe- renduma orain!

Juan Mari
Arregi



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Chiapasko indigenek Marcos gabeko aro berriari ekin diote

“EZLN ez da mintzatuko gehiago nire ahotik” esanaz amaitu zuen hitzaldia Marcos azpikomandanteak maiatzaren 24an mila indio zapatista eta beste hainbeste kanpotarren aurrean. Bere izarra itzali aurretik, Marcosek azaldu zituen Mexikoko Chiapasen burutzen den azken urteotako matxinada berezi eta arrakastatsuenaren ezaugarri nagusiak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EGIAZ RAFAEL SEBASTIÁN GUILLEN baldin bada *Subcomandante Marcos* pipadunak ezkututzen duen gizona, 1957an Tamaulipasen sortutako intelektuala, 57 urte ekainaren 19an beteko ditu Lacandona oihaneko zokoren batean. Baina maiatzaren 24an mundu guztiari aitortu zion Marcosen espektakulu hori dena amarrua izan dela: Mexikoko gobernuak bezala hedabide nagusiek irudi bat nahi zutenaz, horiei lana errazteko zapatistek ondua.

Interneten eskura dagoen “*Entre La Luz y La Sombra. Últimas palabras de Subcomandante Marcos antes de dejar de existir*” hitzaldian dio pasarte batean: “Marcos maitatu edo gorrotatu dutenek jakin bezate holograma bat dutela maitatu edo gorrotatu. (...) Jaio eta hazi nintzen herrian ez da etxe-museorik izanen, ez metalezko plakarik. Inor ez da biziko Marcos azpikomandante izanaren kontura. Ez dira heredatuko ez bere kargua ez bere izena. Atzerrian hitzaldi karurik ez. Luxuzko ospitaleetan artatzerik ez. Ez alar-gunik, ez herederorik. Ez hiletarik, ohorerik, estatuarik, museorik, sari-rik, gizabanakoa gurtuz taldea mesprexatzeko sistemak egiten duten horretatik deus ez. Sortu egin zuten pertsonaia eta orain sortzaileek, emakume eta gizon zapatistok, suntsitu egin dugu”.

Maiatzaren 24ko elkarretaratzea EZLNk deitu zuen justu egun batzuk lehenago bilkura batetik etxerakoan Las Margaritas herrian hil zuten José Luis Solís López *Subcomandante Galeano* matxinoaren omenez. Idazle ezkertiar famatuaren izena bere egin zuen Galeano maisu gaztea Acción Nacional eta Verde Ecologista (sic) alderdietako kideek hil zuten. Mexikoko Gobernuaren eta lekuko lurjabe handien morroi paramilitarrak dira hiltzailak, prentsak zabaldu duenez.

Bilkura Marcosek baliatu zuen munduari adierazteko hemendik aurrera Moises azpikomandantea ariko dela EZLNren bozeramaile. Zapatista historikoa, 1983tik dabil gerrillan sarturik, 1994an burututako eraso famatuan Marcos eta Pedro azpikomandanteen —azken hau gudu hartan hila— alboan ari zen eta geroztik sarritan bera eduki dute solaskide mundu osotik Chiapaseko iraultza txikia ezagutzera hurbilduek. Maia kulturako tzeltal etniakoa omen da.

Moisesek iragarri zuen dagoeneko ezagunak direla Gleanoren hitzaileen izenak, justizia egingo zela agindu zuen, baina entzuleei eskatu zien beren haserre ez bideratzeko itsutasunez edo diru gosez kapitalista boteretsuen mesedetan hiltzaila izan zirenen kontra, hase-

El blog de GIAPetik hartutako argazkian, Marcos agur militarra egiten maiatzaren 24an, Chiapaseko La Realidad herrian. Lidergoaz esan zuen: “Gure ideian eta praktikan, oldartu eta borroka egiteko ez dago ez lider, ez kaudillo, ez mesias eta ez salbatzaile beharrik. Borroka egiteko lotsa pittin bat, duintasun puska bat eta antolaketa handia besterik ez da behar. Gainerakoa, edo taldearen mesederako da edo ez du balio”. Eta mendeku nahiaz: “Xuxurlaka deitoratzen ditugu injustuki erori direnen heriotzak. Horrela entzun baititzakegu beste batzuen oinazeak, gure egin besteren amorrua eta horrela jarraitu hori guztiarekin garrasia osatu eta borroka askatzailea bilatzeko bide luze, zail eta neketsua egiteko. (...) Justizia txikiak mendekuaren antza handia du. Justizia txikiak inpunitatea banatzen du, zeren errudun bakarra zigortzean gainerakoak absolbitzen baititu”.

rea sistemaren kontra bideratzeko.

La Realidad herrian egindako agerpenaren bihamunean denetako titularrak plazaratu dira: “*Subcomandante Marcos deja la dirigencia del EZLN*”, “*Reaparece el subcomandante Marcos en homenaje a Galeano*” [esaten baitzen liderra gaixorik edo are hila ere egon ote zitekeen], “*La metamorfosis del subcomandante Marcos*”... Irakur daitezkeen kroniken artean lekukotasun berezia eskaintzen du ekitaldian konbidaturik egon zen Alejandro Reyes idazleak (“*La reina del cine Roma*” nobelaren egilea, besteren artean) zapatistek zabaldu duten “*Adiós, Subcomandante*” kronikan, Marcosek paraboletan esana hitz lauagoz laburbilduz.

EZLNren eskualde autonomoa

Zapatistek 1994ko gertakizunen ondoren hautatu behar izan zuten, dio Marcosek: ez borrokatzearen edo negoziatzearen artean, baizik eta hiltzearen edo bizitzearen artean. Uler daiteke, ahalegindu zirela Mexikoko agintarientzako eroso zen aurrez aurreko borrokari izkin egiten. Lehentasuna eman ziotela armada gerrillari bat eraikitzeari ez baina hezkuntza, osasuna, duintasuna, justizia, autonomia... bermatzeko egiturak osatzeari.

Hogei urteotan aldaketa handiak gertatu dira EZLNn, kanpotik begi-



ra zeudenek ikusi ez dituztenak. Klase ertain ikasietakoen gidaritza lanak orain laborari indiginek egiten dituzte. Arrazaz, zuzendaritza arras indigena izatera pasatu da. Pentsamenduz, abangoardia iraultzailearen ideari gaina hartu dio obedituz agintzeak, goiko agintea hartu nahi izateari behetik agintea sortzeak, politika profesionalari eguneroko politikak, liderrei herriek, genero bazterketari emakumeen parte hartzeak, ezberdinari iseka egiteari ezberdintasuna ospatzeak...

Eta Marcosen irudia? Alejandro Reyesek laburbildurik, "pertsonaiak balio izan zuen biziaren alde borrokan ari zen mugimendua ezagutarazteko. Baina balio izan zuen aurrekoak nahasteko ere, goikoak

[agintariak] eta hedabide nagusiak pertsonaia eraikitzen eta suntsitzen ahalegintzen ziren bitartean, zapatistek segitzen zuten bizia eraikitze-ko beren ibilaldian".

2005ean Lacandona oihaneko VI. Adierazpena plazaratu zutenerako ohartuak ziren mundu osoan zapatistek bazeuzkatela solaskide egokiak: "Azkenik, bazen jendea ulertzen zuena guk ez genuela bilatzen ez gidatuko gintuen artzainik, ez guk paradisura eramango genuen artalderik. Ez ugazabarik, ez esklaborik. Ez kaudillorik, ez bururik gabeko masarik". Marcos pertsonaiaren beharrik ez zegoen gehiago.

Komandanteordea maiatzaren 24an zaldi gainean agertu zen ohiko kagulaz, pipaz eta aurikularrez gain

begi gainean zeramala pirataren ikurrez hornitutako adabakia. Literaturan edo komunikazioan adituek interpretatuko dituzte, agian antropologok, Marcos-Guillenek bere buruaz esandako pasarteak. Baina azken agurreko mezuak biltzen ditu EZLNren urteotako borrokaren eta pentsamenduaren hari nagusiak.

Mexiko agintearen eraso gogorak jasan dituzte, sarritan oso baka-rik sentituz, munduan matxinoon irudi sinpatikoa hedatzen zuten kamerak itzaltzekoan, gainean zeuzkatenean militarrek beren makineria osoarekin. Hala ere, biziraute hutsetik harago joan dira: 2012ko abenduan, munduaren balizko akabera edo kataklismoa zela eta esoterismoaren maitaleek maia jendea modan jarria zutenean, EZLNk indar erakustaldi handia egin zuen 40.000 herritar mobilizatuz.

Marcos azpikomandantea indioen aspaldiko beste lider baten antzera erretiratu da. "La sal de los cerros" liburuan Stefano Varese antropologoak aipatzen du Santos Atahualpa, XVIII. erdialdean Peruko erdialdeko oihaneko indioak elkartu eta lortu zuen misiolari eta militar espainiarrak handik uxtzea luzarako. Indioek ez zieten kolonoei irabazi, hauen krudelkeriaren aldean eskuzabal jokatu borrokatu zuten, eta hala ere inbaditzaileei kendu zizkieten berriro haien lurretara hurbiltzeko gogoa. Askoz beranduago ere indioek oroimenean zeukaten Santos Atahualpa: "Ez da hil, bere gorputza desagertu zen kea dariola"... ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Kalte-ordaina

POZARREN hartu zen *Egunkaria* auziaren atal ekonomikoa bertan behera geratzearena —oraindik itxieraren azken urrats judiziala eman gabe badago ere, hala izango dela uste baita—; eta poztekoa da bereziki auzipetuengatik eta haien gertukoengatik, beste hamaika balorazioen gaintetik, pertsonak behar duelako lasaitasun maila bat bizitzeko. Baina pozaren segidan da haserrea, amorrua, sumindura, besteak beste, auziaren bueltan azken hamarkadan gertatutako kalte asko konponezinak direlako. Tortura ezabaezina da, *Egunkaria* ez da berriz zabalduko, langabezian gertatutako langileak ez dira 2003ko otsailaren 20ko haien lanpostura itzuliko, espetxean igarotako hilabeteak itzuli ezinak dira...

Eta orduan zer? Orduan kalte-ordaina beharko litzateke, baina jasoko den esperantza handirik ez da, batez ere Espainian gaur egun agintzen dutenekin. Eta hemendik bost edo hamar urtera aginte makila esku demokratikoagoetan balego? ETaren biktimek aitortza eta kalte-ordaina merezi badute, zergatik ez *Egunkaria*-ren aferak harrapatutako guztiek? Estatuaren erantzuna: justizia perfektua ez delako eta, azken finean, amaiera hau berau delako, justiziaren funtzionamenduaren erakusgarri. Hori da *Egin* egunkariaren itxierarekin Madrilek esan zuena, edo *Egunkaria* auziko atal nagusiko auzipetuen absoluzioarenean, edo Espainiako justiziaren beste hainbat eta hainbat gehiegikerien ondoren erantzundakoa.

Pertsonen duintasunari erasotzeaz gain, zauria irekita uzteaz gain, Espainiako demokraziaren gabeziak ere eta nabarmenago agertzen dira gisa honetako Estatuaren jokabide hauekin. Eta tan-taz tanta, Espainiako Justiziaren



higadurak Estatuaren sinesgarritasuna jan du euskal gizartean. Nola ez ote dira konturatuko bide horretan euskal gizartetik gero eta urrutiago daudela? Boterearen ajeak dira, agintearen inpunitatearen elikagai, baina halakorik ikusteko gai ez dena gizartearen lehen lerroetatik desagertzen da.

EUSKAL gizarteko indar politikoen artean ez da zalantzan jartzen ETaren biktimek behar duten kalte-ordainaz eta aitortzaz, nahiz eta horren gauzatzeari buruzko desberdintasunak handiak izan. Espainiako legediaren izenean, adibidez, preso baten argazkia publikoki agertzea nahikoa da berau ETaren biktimekiko iraintzat hartu eta zigortzeko. Edo askok pentsatzen dute ezker abertzalea urrutiago joan beharko litzatekeela bere auto-kritikan edo... Baina inork ez du zalantzan jartzen kalte-ordaina eta aitortza behar dutela.

Memoriarena beste borroka esparru bat gehiago da azken finean, negoziazioz edo inposaketaz bidera daitekeena. Negoziazioz egiten bada egonkorrago eta sustraituago garatuko da. Inposatutakoa noizbait lehertu egingo da eta ez da eraginkorra izango bizikidetzari begira. Baina gainera, ezin da guztiz debekatu edo inpo-

satu, herritarren ehuneko esanguratsu batek hala gura badu topatuko duelako beretarren memoria jorratzeko modu eta lekua, izan Aritxulegin, Larrunen edo Anboto puntan. Oroitzea baino, nola baita kontua, eta hobe hori ere elkarrizketaren bidez adostea, Guardia Zibilak zer bai eta zer ez erabakitzea baino. Irlandako iparraldeko kaleetan ibiltzea bera, esaterako, hainbat memoriatan murgiltzeko egiazko ariketa da. Presoak hurbildu edo askatzeko Madrilgo giltza ezinbestekoa da, baina bake prozesu batek behar dituen gainerako osagai guztietarako ere bai? Bada sasoiak PPK eta PSOEek bake prozesu serio bati hel diezaioten eta egiten ez badute, gainerako indarren artean egin beharko litzateke bidea.


Presoen adibidea: Eusko Legebiltzarrak euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeari buruzko eskaria onartu zuen iragan astean, zazpi-garrengoz. PP eta PSE aurka. Ados, haiek dute giltza eta haiek erabaki arte hurbilketak jai. Baina ez dute herritarren kontzientziaren giltzarik eta hori barik, lehenago edo geroago, PPK eta PSEk jai.

Bakoitzak bere izaerarekin, baina bada bake prozesuarekiko bestela jokatzeko garaia. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Argiako harpidedunentzat



Atxaspi Hotela

Relax gaua
(astean zehar)
bi lagunentzako

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

STM

San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



Inguru Abentura

Zubi saltoa
(2. maila)
4 lagunentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Kauta

Agerre

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Bixente ARGIA rentzako

Bixente Ameztoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ameztoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

Lamina sorta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2417. Argia)

GAMETXO HOTELA

• Haizea Bereziartua (Arrieta)

INGURU ABENTURA

• Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
• Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)
• Mila Apezetxea Loiarde (Hernani)
• Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)

ERLEA GURE SENDAGILE liburua

• Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)

SAN TELMO MUSEOA

• Raco de La Corbella (Valentzia)
• Alberto Irazu Ibañez (Donostia)
• Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)

DEZEN

• Joseba Zarate Zarate (Bilbo)
• AED Elkartea (Arrasate)
• Ima Etxeberria Altuna (Donostia)
• Eneko Iriondo Eguren (Legazpi)
• Juan Olalde Agirre (Pasai Antxo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparraldean 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)